



Julian Zapiain

Kutxako batzar
nagusiko kidea

Kutxen pribatizazioa barrutik salatzen

Gregorio Monreal Zia

«Nafar gizartea
otzana da,
uste daitekeena
baino otzanagoa»

Joan Josep Bosch

Podemos - Ahal Dugu

«Humanitatearen
historian, txiroek
bakarrik irabazi
izan dute, asko
izan direnean»

Akelarrea


Gaurko
errealitatea
salatzeko festa

Net Hurbil

Kontsumitzen
dugunaren %90a
itsasoz
garraiatzen da

Larrun

Futbola, herria
asetzen ez duen
gozokia



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat

160 dokumental baino gehiago ikusgai

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Atotxako ikurrina ezkutua
Banlieues. Pariseko erreboltak
Bertsoaren aldagelan
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Debekatuta dago oroitzea
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Erretenak: Y belaunaldia
Espainiako Polizia Euskal Herrian
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskal Selekzioa herri baten ametsa
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Galerna, infernua itsasoan 1912-2012
Gudari baten egunerokoa

Haizea eta sustraiak
Hitz Egin
Ikazkin baten historia
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI
Iparra Hegoa - Errotuz zabaldu
Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Isilpeko Lana (Inside Job)
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Kapitalismoa, maitasun istorio bat
Kontseiluak 10 urte
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Lur basatietako bakardadean
Nabarra Boua eta Matxitxakoko guda
Nire bizi osoa espetxean

Nömadak Tx
Oroitarria
Patio Maravillas
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai
Selekzio baten ibilbidea
The Pirate Bay - Teklatutik urrun
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian
Tximeletak, etengabeko metamorfosia
Zerutik sua dator!
Ziztadak

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com



**EGUZKI
BIDEOAK** *elkarlanean*





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko ekainaren 22a, 2.420. zenbakia

ASTEKO GAIA

AKELARREA Hesi guztien gainetik. URKO APAOLAZA AVILA / 4

PERTSONAIA

GREGORIO MONREAL ZIA: «Ezinbestekoa da EAE eta Nafarroaren arteko elkarlana hitzarmenaren defentsan».
REYES ILINTXETA / 10

GAIK

JULIANA AGIRREZABALA PAGOLA XIX. mendeko irakasle erreferentea. AMAIA ZABALA TOLOSA / 16

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Aginaga biziberritzeko proiektua.
LIDE HERNANDO / 19

IRITZIAREN LEIHOA

EUROPAR BATASUN ERREALA ASIER BLAS MENDOZA / 20

PETROLIOA, EZ DAGO GURE ESKU! IÑAKI BARCENA / 22

1936KO GERRARIK GABE, 'EHUN URTE BAKARDADEAN' EZ?
IVAN GIMENEZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Memoriaren kapsulak. KATTALIN MINER / 22

ERDIKO KAIERA

LEO SIMOES: «Funtsezkoa da sortzaileek argazkigintzatik haragoko proiektuetan parte hartzea». MYRIAM GARZIA / 24

NAFARROAKO DANTZEN ATLASA Arbasoekiko lotura eta etorkizuneko ohitura. AINHOA MARIEZKURRENA / 26

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Yoko Ono eta iraultza isila. MYRIAM GARZIA / 31

OSASUNA JABIER AGIRRE / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

SANTI OCHOA DE ERIBE: «Energiaren alorrean demokratizazioa nahi dugu». UNAI BREA / 36

JOAN JOSEP BOCH: «Norbaitek ez duenean ezer galtzekorik oso arriskutsu bihurtzen da». XABIER LETONA / 39

HAURREN HIZKUNTZA ERABILERA Parkea bete euskara.
IURE EIZAGIRRE / 42

JULIAN ZAPIAIN: «Kutxabanken egiten ari direna lapurreta da, ekonomizidua». PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Guztiaren %90 bi sosen truke itsasoz dakarten horiek. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

AKELARREA

Hesi guztien gaineratik

Urteko gau motzenez suak zeruraino luzatzen ditu besoak Hernaniko plazan. Gaizkiaren eta ongiaren muga ikusezin gertatzen da eszena horretan, ordena anabasa bihurtzen. Historia zimurtu egiten da, salaketa eta aldarriari bide emateko. Akelarreak sentimenduak azaleratzen ditu, kontraesanak probokatu. Ez da folklorea, ez da tradizioa. Sorginkeria hutsa da.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Ikor Kotx

AKELARRE HITZA ASMAKIZUN BAT DA. 1609an sortu zuen Inkisizioak, seguruenik Juan del Valle Alvarado fiskalak. Hala dio gai hauetan eminentzia den Gustav Henningsen ikerlari daniarrak. Urte hartako otsailaren 14an Zugarramurdiko herritar batzuk Logroñon azaldu ziren, Inkisizioaren tribunalari esateko eurak ez zirela sorginak. Preso hartu zituzten, eta torturatu. Alvaradok itaunketa horien ondorioak eskribitu zituenean, lehen aldiz lotu zuen satanismoarekin ditzosozko hitza: akelarre.

Geroztik ustezko sorginen batzarrei deitu izan zaie akelarre, mendeetan barrena herri sineskeran errotu eta haren parte bihurtzeraino, nola Orozkoko Garaigortan edo Dimako Petralandan. Eta egun, hitz asmatu hura irakur dezakegu festa-egitarauetan, ikusi Alex de la Iglesiaren terrorezko komediatan edo entzun Fermin Muguruzaren ahotan: “*Zugarramurdin akelarrea da, Infernuko errekek sortu leizeetan...*”.

Gramatikan akerrak ezinezkoa luke “r” gal-tzea beste hitz batekin elkartuta. Beraz, utikan akerraren larreak eta ongi etorri belar pozoitsuena; askorentzat horixe besterik ez baita akelarre: alka-belar larrea. Egiaz, esplikazio antropologikorik ere ez dago, akerrak beti izan baitu eginkizun positiboa euskal mitologian. Eta toponimiak ere nekez onartzen ditu izaki

Inkisidore, borroero
eta sorginek orgia
moduko bat
antzezten dute.
Txalaparta eta
batukadaz
sorturiko erritmo
primitibo bat
dantzatzuz
gauzatzen da
metamorfosia.



bizidun mugikorrak. Ez, akelarre ez da euskal hitza, sorgin-mania eruditutik ernetako ipuina baizik. Baina gure egin dugu: “...*Zugarramurdin akelarrea da, euskaldun askeak elizatik at!*”

Hernani, 1986

Krisia, drogak eta rock erradikala. Hernaniko auzoetan beste herrietako ke bera arnasten zen 80ko hamarkadan. Politizatuta eta berezita zeuden koadrilak batu behar zirela okurritu zitzaizen batzuei, eta hortik sortu ziren herri olinpiadak eta baita akelarrea ere.



1986a zen, euskal paganismora garamatzan Pedro Olearen *Akelarre* filma estreinatu berria zen, baina Hernanin akelarrea jai alternatiborako tresnatzat zuten gazteek, ez zen historia gogoratzeko karroza soila. Ia 30 urte geroago funtzio sozial hori izaten segitzen du, eta urtero ekainaren 23an salatzen dira emakumeen zapalketa, euskararen diskriminazioa, torturak edo sexu estandar inposatuak.

1971n *ikimilikilikilik* oihukatuz euskal gazteria berriak Larraitzen egin gaupasari “akelarre” deitu zioten erreakzionarioek. Bidankotzen ere

badira hamarkadak “*xurgin xasted*” egiten dutela. Aurrekari horiek kenduta, esan dezakegu Hernaniko akelarrea aitzindaria izan dela. Gorabehera handiak izan ditu, baina azken urteetan indar handiz ospatu da, herriko Gazte Asanbladak hartu baitu lekukoa.

Egun, toki askotan ospatzen dute solstizioa akelarrearekin. Leioan dozena bat urte baino gehiago daramatzate eta zita garrantzitsua bilakatu da eskualde osoan. Barañainen herriko festen ekitaldi nagusietakoa da, herritarrek egina, autogestionatua eta errealitate politiko

AKELARREA

eta sozialarekiko kritikoa. Zugarramurdin gau horretan ere egiten ziren milaka laguneko kontzertu eta akelarre ikaragarriak, kasu honetan Hernanikoa zuten eredu. Masifikazioa dela eta jada ez da halakorik egiten eta Sorginaren Egunak ordezkatu du.

1610eko autofedearen 400. urteurrenaren karietara, Zugarramurdin makina bat ekitaldi antolatu zituzten jazotakoa gogoratzeko. Akelarrerik ez baitzen existitu, eta sorginak auskalo, baina sorgin ehiza bai, hori euren haragitan nozitu zuten sutan erretako 11 zugarramurdiar emakume eta gizonek. Berrikitan, Mikel Azurmendi antropologoak liburu batean azaldu du garai horietako monarkia absolutistek erlijio hutsetik ideologiara jauzi egin zutela eta sorgin ehiza erabili zutela hizkuntza bera zuten herritarren artean muga psikologikoa sortzeko: Bidasoako muga.

Paradoxikoa da. Lau mende geroago gertaera horiek erabiltzen dira, ez mugak sortzeko, baizik jendartearen dirauten konbentzioekin hausteko. Kontu ilun eta konplikatu asko gurutatu ziren XVI. mendeko autofede horietan. Urte gutxira Inkisizioak onartu zuen dena asmakizuna zela —Alonso Salazar inkisidoreak hala aitortuta—, baina egungo errealitatetik interpretazioak aske dira, belargile paganoen pertsekuzioa izan zela dioen imajinariotik hasita: *Akerra erdian zen / ilargi beteko gau hartan* —dio Labriten abestiak—. *Orain sinestu ala ez / zen eskuetan dago.*

Sorgin dantza

Oriako sorgin dantza tradizionalari lapurtutako melodia eta koreografiak ehunka sorgin, galtzagorri eta zirrikok ilara amaiezinak osatzen dituzte Hernanin barrena, musika eskolako dultzaineroen doinu indartsuari segituz —Juan Mari Beltranek dultzainarentzat moldatu zuen airea—. Bi ordu eta erdiko kalejiran ikusiko ditugu zortziko solemnez osatutako paseoak, deiak, kortejatzeak eta baita keinu itsusi samarren bat ere. Azken pausoan, sorginak tximistaren abiadan aterako dira, sasi guztien gainetik garrasika, eta plazan sartuko, laino guztien azpitik irrintzika.

Euforia giro horretan antzerkia egiten da. Sorginek inkisidore zitalen tormentua ezagutuko dute, eta halako batean Aker azalduko da. Ez galdetu nola, baina azkenean denek, inkisidore, borrero, sorgin-ama, monagilo... Denek orgia batean amaituko dute kasik larru-bizik, eta txalaparta eta batukadaz sorturiko erritmo primitibo bat dantzatzu milaka begiren aurrean.


Irudi luke halako muntaia batek antolaketa landua behar lukeela. Baina hemen ez da zuzendaririk, ezta gidaritzatzerik ere. Hierarkizatu gabea eta asanblearioa da akelarrea: “Urte batean astebete lehenago ezer prestatu gabe geunden. Ez dakit nola, baina azkenean dena ondo ateratzen da, lurretik sortutako zerbait balitz bezala”. Garikoitz Arrese-Igorrek badaki zertaz hitz egiten duen, ez alferrik daramatza 17 urte akelarreko antzerki taldean.

Irudi luke halako muntaia batek antolaketa landua behar lukeela, baina hemen ez dago zuzendaririk ez gidaritzatzerik ere. Hierarkizatu gabea eta asanblearioa da akelarrea

“Europa osoan ez dago halakorik”

Arrese-Igor aspaldi hasi zen homosexualen eskubideen aldeko mugimenduetan eta azkar ulertu zuen akelarrearen benetako funtsa, ez bakarrik sexu askatasunari zegokionez —antzerkian saiatzen dira eszena hetero, gay, lesbiko eta bisexuallak nahasten—, baita aldarrikatzeko emakumeen papera, edo droga eta alkoholaren kontsumoaz hausnartzeko. 39 urteko donostiarrak apustu egingo luke ez dela Europa osoan halako plaza, jendetza eta ordutegian antzeko ekitaldirik egiten.

Horrek kritikak ere ekarri dizkie. “Denetarik entzun izan dugu. Hasi ginenean Akerrekin halako keinu sexualak egiten protesta handiak izan ziren. Gogoratzen dut guraso elkartekoek egunkarira gutuna bidali zutela eta nik erantzun nuen esanez gurea probokazioa bazen, haurrek bideo-jokoetan ikusten dutena zer ote den. Gure artean ere eztabaida sortu zen. Ni ez nen-



Deportivo taberna

Ongi pasa
San Juan jaietan!!!

Kardaberaz 36 · 20120 Hernani



goen inondik inora prest makurtzeko, bestela ez nintzateke aterako”.

Bestelako iritziak ere izan dituzte. Talde feministek maiz kritikatu izan dute Akerren funtzioa eta erotismo falikoaren nagusitasuna. Arrese-Igorrentzat ez zaie arrazoirik falta eta seguruenik aldaketak egin beharko dituzte zentzu horretan.

**Sorgin dantzaren
azken pausoan,
Hernaniko plazan
abiada handiz
sartzeko unean,
euforia lehertu
egiten da.**

Akelarrean kontziente dira une batzuetan irudiak gogorrak direla, deserosoak akaso. Zein da probokazioaren muga? Mugarik badu agian? Errebindikatzea eta dogmak haustea akelarrearen esentzia dira eta detaille txikienetan ere igartzen da hori. Zer pentsatuko luke militar parakaidistak jakingo balu bere uniforme zaharrari zakil bat josi



ERREMONTÉ JAIALDIAK

Ostegunero eta
larunbatero
Galarreta Jai-Alai
pilotalekuan

ZATOZ IKUSTERA!



info@oriamendi2010.com

www.oriamendi2010.com





Torturak, emakumeen zapalketa, euskararen diskriminazioa, sexu estandar inposatuak. Duela lau mendeko gertaerak baliatzen dituzte egungo errealitatea salatzeko.

diotela Hernaniko Akerraren mozerro bihurtzeko?

Plazaren erdian sua, eta haren inguruan sorginak eta sorginduak, azken dantza frenetikoan: bagak hatza aurrera eramanez, bigak bizkarrak konkortu eta jauzika.... Zirkulu horretan sortzen diren sentsazioak deskribatzea ez da

erraza: “Hor zaude erdi biluzirik, lastoz josita, jendea begira, lotsa, txantxak... Polita da azkeneko momentu hori”. Eta horrela, astiro-astiro, sugarrak hiltzen doaz, Exkixuren kanta hark zioen moduan, gauak ere ondo baitaki noiz datorkion goiza. ■



KIDE
KAFETEGIA

Gosariak | Pintxoak | Plater konbinatuak
☎ 943 33 10 73
Karobieta, 1 · Hernani (Gipuzkoa)

Gozotegia eta Gozagintza
adarraga

Juan de Urbieta, 7
☎ 943 550 910
20120 HERNANI

Lehen hitza, Udalean ere, euskaraz



udalean ere
euskaraz



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



GREGORIO MONREAL ZIA

«Ezinbestekoa da EAE eta Nafarroaren arteko elkarlana hitzarmenaren defentsan»

2013ko Euskadi Ikerkuntza Saria jaso berri du Zuzenbidearen Historian aditua den unibertsitateko irakasle eta ikerlari honek. Euskal herritarren eskubide historikoen herentzia nagusi diren egungo hitzarmen ekonomikoez, haien garrantziaz eta pairatzen dituzten erasoez mintzo zaigu, besteak beste, elkarriketa baino gehiago klase partikularrean.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Abertzale kontzientzia nola piztu zitzaizun?

6 urte baino ez nituela anaia batek esan zidan euskal herritarra nintzela. Berak 13 edo 14 izanen zituen eta abertzalea zen. Gerra ondoko Nafarroa hartan abertzaletasuna ez zegoen soilik gorderik, 20 metroan lur azpian ezkutaturik baizik. Kontzientzia pizte moduko hori niretzat onuragarria izan zen, gai guztiekiko jarrera kritikoa sorrarazi zidalako. Ikasle garaian, Deustuko Unibertsitatean, 1961ean edo 62an, ia denak Franco zaleak ziren. Garai hartan ni alde ezkutuan mugitu nintzen eta horrek bai eramaten zaituela herria eta historia beste jarrera batez ulertzerara. Hori historialari batentzat oso interesgarria da bertsio ofizialen inguruan susmo etengabea izaten baituzu.

Tesia Bizkaiko Foru Zaharrari buruz egin zenuen. Zergatik?

Andres de Mañerikua, aditu handia Bizkaiko historian, irakasle izan nuen Deustun. Formakuntza handiko pertsona zen, oso kritikoa, eta niregan oso eragin handia izan zuen. Bizkaiko Forua ikaragarria da. Nafarroatik eta, batez ere oraingo korrante pan-nabarrista honekin, ematen du bizkaitarrak ez direla ohartzen haiek ere nafarrak direla. Baina ez da horrela. Oso erakunde politiko bizkorra eratu zuten XII. mendearen aurretik. Europako legedi aurreratuena zen eta Rousseauk, ilustratuek... harrigarria zela aitortzen zuten. Frantziako Iraultzari berari ere aurre hartzen zion eskubide eta askatasunei dagokienean.

Eta hori zergatik zen horrela?

Herri bezala bizkaitarrek askatasunaren kontzeptu oso garatua zutelako eta aspaldidanik praktikan erabiltzen zituzten eskubideen multzoa oso aberatsa delako. Adibidez, emakume ezkonduak ondareak kudeatzeko zituzten ahalmena eta seme-alabekiko aginpidea, kasu askotan senarrarenaren bezain bestekoa. Foru eredugarria izan da. Horregatik Bizkaia izan duen boterea eta hortik ere Gernikako Arbolaren garrantzia askatasunen ikur bezala.

Pirinioetan erakunde juridiko propiorik izan al da inoiz?

Hizkuntzaren aldetik Joan Corominasek esan zuen euskal oinarri toponimiko oso zabala

NORTASUN AGIRIA

Gregorio Monreal Zia (Etaiu, Nafarroa, 1942ko martxoaren 11). Zuzenbidea eta Ekonomia ikasi zuen Deustun eta Madrilén. EHUKo lehen errektorea izan zen. 1994tik NUPeko Zuzenbide Historian katedraduna. Egun irakasle emeritua da eta ikerkuntzan dihardu buru-belarri. 1992tik 1996ra Eusko Ikaskuntzaren lehendakaria izan zen. Politikan aritu zen senatari moduan Madrilén, Frente Autnómico-an Gipuzkoatik 1977ko hauteskundeez geroztik. 1979an Gernikako Estatutua idazten ere parte hartu zuen. Lotura estua du Renoko unibertsitatearekin (Nevada, AEB) eta bertako William A. Douglass irakaslearekin.





zegoela. Antzekoa da esparru juridikoan gertatzen dena: familiaren ondare antolaketa oso antzekoa da Bizkaitik Kataluniaraino. Testamentua egiterakoan dagoen askatasuna edo etxearen iraupena ziurtatze aldera dena seme edo alaba bati uzteko aukera, adibidez. Hori guztia Pirinioetako zuzenbidearen ezaugarri nagusietakoa da. Beste bat da auzo ondasunen garrantzia. Nafarroan, Iruñerritik gora, gehienak herri lurrak dira eta bailaren arteko itunak egiten dira lur horiek erabiltzeko.

Mantendu da halakorik?

Aragoin, Katalunian eta Nafarroan kode zibil propioak sortu dituzte, esate baterako. Zuzenbide publikoaren aldetik azpimarratu behar dugu hazienda propioa dugula eskubide historiko batzuk ditugulako. Hau Espainian ez da oso ongi ikusia izan. Zaharkitutzat hartzen dute, baina kontuan hartu behar dugu gaur egun herrialde modernoek anglosaxoiak direla eta han eskubide asko Erdi Arotik gortzen dituztela batere konplexurik gabe.

Valladolid, Extremadura eta Madrilgo unibertsitateetan aritu ondoren etxera itzuli eta EHUren sorreran parte hartu zenuen kementsu. 1981etik 85era errektorea izan zinen.

Herri honek ez zuen unibertsitate propiorik eta iruditu zitzaidan hori lortzeko modurik onena zela kanpora ateratzea eta beste unibertsitateak ikustea. Unibertsitatearen aldeko ahalegina oso urrutitik zetorren. Argi ikusten zen unibertsitate onik gabe zailtasun handiak izanen genituela herri bezala bizi eta iraun ahal izateko.

Zer ekartzen dio unibertsitateak herri bati?

Gauza asko. Lehena, ikasleek bertan ikasteko aukera izatea, eta bigarrena, goi-mailako

Eman ta zabal zazu

Monrealek berak hautatu zuen goiburu hau EHUko ikur gisa, Iparragirrek XIX. mendean Foruen ereserkian idatzitako hitz hauekin "bizkaitarrek mendez mende garatu eta defenditutako askatasun politikoen eta zibikoen hazia munduan zehar barreiatzea" proposatzen delako.

kultura trataera eman ahal izatea bertako gaiei: historia, literatura, geografia, ekonomia... Geure zientzia propioa egin ahal izatea, hitz batez. Hori da gakoa eta hau funtsezkoa zen gure kasuan. 1841ean eta 1876an foruak galdu ondoren, mekanismo babes emaile hori gabe, autogobernurik gabe, hizkuntza lehen planora pasa zen, baita unibertsitate propioa sortzeko beharra ere.

Eragile intelektual bat da?

Unibertsitateari oso lotua dago zer nolako medikuak, enpresarioak, irakasleak formazten ditugun etorkizunari begira. Oso zaila da politika ongi egitea, adibidez, politikariek formakuntza egokirik eta herriaren ikuspegi oro hartzailerik ez badute. Hori baldintza ezinbestekoa da baina ez nahikoa, izan ere orain unibertsitate propioa dugu eta hala ere politikari gehienek oso ikuspegi murrizta dute gure herriaz.

Hiru hamarkadaren ondoren nola ikusten duzu gaur egun EHU?

Oso une zailetan sortu ginen. EHUK oso eboluzio positiboa izan du. Ez da nahi genukeena, argi eta garbi, baina aurrerapausoak eman dira. Bestalde, Mondragon Unibertsitatea sortu zen, oso interesgarria, errealtateari eta lurraldeari estuki lotuta, eta hor dago Deustukoa ere, oso klasikoa, erantzun egokia ematen diona enpresa arloari. Gure arrakasta ekonomikoaren giltzetako bat da hori, zalan-tzarik gabe.

Nafarroan unibertsitate publiko baten premia zegoen?

Nafarroako Unibertsitatea bertan errorik ez duen erakunde batek sortua da eta alor



**Galar Zendeako
Arlegi herrian duen
etxean egin genuen
elkarriketa.**

estrategikoetan ari diren irakasle asko ere kanpotarrak dira, beste balore batzuk dituzte. Nafarren bizpahiru belaunaldi formatu dira balore horiekin eta horrek eragina du gaurko gizartean. Gizartean atxikimendu altua irabazten joan den arren, begi-bistakoa da inoiz NUP ez dela izan oso unibertsitate maitatua botere publiko nagusien aldetik. Horregatik bere aurrekontuetan murrizketak egiteak ez die batere minik ematen instituzioei.

Hezkuntza eta ikerkuntzarako murrizketen inguruan zer gogoeta egiten duzu?

Kaltea hurrengo bizpahiru hamarkadetan nabaritutako da. Produkzio zientifikorako, proiektuetarako dirurik ez badago, egitura ahuldu egiten da. Ikerketarako eta irakaskuntzarako atea itxita dute balio handiko gazte askok. Profesionalak egonen dira enpresa, administrazio edo lanbide desberdinetarako, baina ikertzaile eta irakasleen multzoa murriztuz doa eta horrek eragin zuzena du gizarte osoan.

GREGORIO MONREAL ZIA

Zer aterabide izan daiteke?

Hitzarmen ekonomikoa dela medio guk foru ogasun propioa dugu, ikaragarri autonomia dena. Baliabide ekonomikoen aldetik ia konfederazio bat gara gu Estatuarekin. Beste gauza bat da zer egiten dugun gero gure diruarekin. Baliabideak xahutzen baditugu denok buruan ditugun proiektu horietan guztietan eta ez ikerketan edo hezkuntzan, adibidez... Jendeak arduratsu jokatu eta argi eskatu beharko luke dauzkagun bitarteko horiek egoki gastatzeko.

Estatuan askok uste du gure hitzarmen ekonomiko horiek pribilegioa direla.

Bai, baina hau ez da zerutik eroritako zer-bait. Honen inguruan oso borroka latza izan zen XIX. mendean eta gaur egun ditugun erakunde garrantzitsuenak dira. Hemendik aurrera, hori bai, hitzarmenak mantentzea gehiago kostako da. Orain arte Europako dirua iristen zen, baina egun Ekialdeko herrialdeetara ere bidali behar denez, hori bukatu egin da. EAEn eta Nafarroan diru moltsa oso interesgarria da eta eskatuko dute kupoa handitzea, agian gure sistemaren mantentzea bera ere arriskuan jartzeraino. Hori izanen da hurrengo urteotarako borroka handia, segurua.

EAE eta Nafarroa eskutik helduta negoziatzera joatea, onena?

EAEko eta Nafarroako hitzarmenak oso antzekoak dira, ikuspegi instituzionaletik. Nafarroarentzat bermea da EAEk hitzarmena izatea eta jakitea ongi defendatuko duela, lorpen horiek gero Nafarroara aplikatzen direlako. Eta alderantziz ere bai: hemen negoziatzen bada lehenago eta behetik egiten bada, Madrilera nahi izanen du hori bera aplikatu EAEn. Baina Nafarroako Gobernuan agintean dauden arrazoi ideologikoengatik, EAErekiko harreman politikoa hutsaren hurrengo da, nafar gizartearen kal-



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Abertzaleok

"Abertzaleok akats ikaragarriak egin ditugu. Bortizkeriaren erabilpena pozoia bezalakoa izan da abertzaleasunarentzat nafar gizartearen. Bizi eta hil gaitzke benetako errealitatearekin zerikusi gutxi duten asmakizunetan sinesten. Nafarroa Euskadi dela esatea soilik populazioaren %30ak hori pentsatzen duenean eta hori hala balitz bezala jokatu nahi izatea ez da zuzena. Hemen oraindik lokarri asko lotu behar da, kultura politikoa aldatu. Urte oso gogorrak izan dira eta argi dago elkar ulertzea beste modu batez egin behar dela, gure artean lehenbizi eta EAerekin gero, interes komunak aunitz direlako".

terako. Bi erkidegoen arteko elkarlana hitzarmenaren defentsan ezinbestekoa litzateke. EAEn badira elite batzuk oso ongi prestatuak daudenak hitzarmenaren defentsarako eta, oro har, interes handiagoa dago Nafarroan baino. Nafarroan hitzarmena berri-tzeaz gaude eta ematen duen inpresioa da prestaketa oso eskasa dela, oso berde dagoe-la dena. Botereak hemen behetik negoziatzeko prestutasun handiagoa du eta hori da beti Nafarroaren arrisku handia. 1841an oso azpitik negoziatu zen, benetako baldintzek autogobernurako eskumen gehiago kontserbatzeko aukera ematen zuten arren. Eta orain berdin gerta daiteke. Ez dakit gai honen garrantziaz jabetzen ari ote garen, baina gure etorkizuna kinka larrian jartzen ari gara.

Herriaren eta parlamentuaren aurka aritu dira askotan gobernatzen hemengo agintariak?

XIX. mendetik argi ikusi da herritarrek interesea zutela erresuma mantentzeko, baina goimailako klaseek ez.

Hori zergatik? Zergatik ez zuten erresuma izan nahi?

Hiru arrazoiengatik: Erriberako uzta jabe handiek Estatuko merkaturia zabaldu nahi zutelako. Ebron zeuden aduanak gainditu nahi zituzten eta horretarako erresuma izatea traba zen. Beste alde batetik, 1836an Elizaren jabetasunen desamortizazioa egin zuen Madrilek. Komentu askori lurrak kendu eta gehien ordaintzen zutenei saldu. Orduko dirudunek lurra ausarki erosi zuten eta beldur ziren desamortizazio hori ez ote zuten kontraforutzat joko eta, ondorioz, lurrak itzulera-raziko. Beraz, haientzat onena erresumari agur esatea zen. Eta hirugarren kontu bat zegoen, goiko klase horri eragiten ziona: zor

publikoa. Nafarroan errepide sarea mailegu bidez egin zen, aberatsek utzitako diruz. Nafarroa, karlistada eta frantziarren aurkako gerraren ondorioz, erabat pobretuta zegoen. Egoera horretan pentsatu zuten erresuma izateari utzita, Madrilek bere gain hartuko zuela zor publikoa.

Goi-maila horretako ordezkarien kontrolpean sinatu zen erresuma izaeraren bukaerako hitzarmena. Geroztik agintarien klase honek beti behar du Madrilekin pak-tatu herritik defendatzeko. San Cristobal gotorlekua, adibidez, ez zuten Frantziatik babesteko egin, bertako populazioa kontrolpean izateko baizik, herritarrez fio ez zirelako. Baina nafar gizartearen otzana da, uste daitekeena baino otzanagoa. Gure ereserkia minuetto bat da, burua makurraraz-ten duen dantza mota hori. Nafarroan edo-zer gauza egin daiteke boteretik. Madrilekiko itun hori behin eta berriz ageri da eraginkor. Azkenaldi honetan, martxoan bertan, argi ikusi genuen: ezin da aurrera eramanez nafarrek nahi duten gobernu ituna, Madrilek ez badu nahi. Horregatik irudi-tzen zait horren arriskutsua orain hitzarme-naren negoziatioa. Noren esku dago? Beti oso zorrotz eta zuzen jokatu duten teknika-rien esku? Ez. UPNk izendatutako batzorde baten esku.

Burua makur

"UPNren PPrekiko joera hori, presidenteak Madrilgo Gobernuari dion amodio sakona eta burua makurtzeko joera hori oso arriskutsua izan daitezke hitzarmen ekonomikoa negoziatzeko unean".

Beraz, aldaketa politikoa amets hutsa da oraindik?

Madrilgo baimenik beharko ez lukeen gehiengo aterako balitz... baina oso zaila da. Oso gizarte anitza da gurea. Hemen begirune eta ulermen kota handiak behar dira elkar ulertzeko, bestela beti egonen gara gehiengo jakin baten menpe. Baina arazoa da ez gaude-la aniztasunerako heziak, erasorako baizik. Horri beste faktore bat gehitu behar zaio: 80ko hamarkadan EAEn izan zen krisi izuga-rria.

Testuingurua aldatu egin da azken urteotan ordea...

Bai. Orain EAE ez da jada saihesteko modu-ko tokia, eredugarria baizik, krisitik nola ate-ratzen ari den ikusita. Orain aurrerapen gunea da eta zentzu horretan hori ona da orain eta epe luzera begira.

Eta euskararen aurrerapena ere, positiboa da?


Hizkuntzaren eboluzioa Nafarroan izugarri positiboa da eta testuinguru soziopolitikoaren aldaketa oso ona da hizkun-tzarentzat. Euskara ezkortasunari lotua egon da denbora luzer. Orain, aldiz, positiboari lotzen zaio gero eta gehiago. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



JULIANA AGIRREZABALA PAGOLA

XIX. mendeko irakasle erreferentea

Bizkaiko Irakasle Eskolan erreferente izan zen Juliana Agirrezabala. Ahanzturan eror ez dadin, Irakasleen Unibertsitate Eskolako areto nagusiari haren izena jarri zioten 2011n Leioako campusean, eta Jose Maria Otermin kazetariak XIX. mendeko ekintzailea berreskuratu du bere liburutetan.

| AMAIA ZABALA TOLOSA |

JULIANA AGIRREZABALA PAGOLA 1854ko abuztuaren 17an jaio zen, Amezketan. Hamar seme-alabetan bigarrena, nerabea zelarik Bilbora joan zen bizitzera, familia osoarekin. Toledon (Espainia) egin zituen irakasle ikasketak, eta amaitu orduko plaza lortu zuen bertan, 1891n. Urtebetera, Bilbon eskolaurreko plaza bat lortu zuen, oposizio bidez —bere bizitzan lau oposiziotara aurkeztu eta lauetan Bikain atera zuen—, eta gutxira Bilboko Irakasle Eskolan hasi zen. 1908an ikastetxeko zuzendari izendatu zuten eta postu horretan hil zen, 1912an. Agirrezabalak bizitza osoa eskaini zion Maistren Goi Mailako eskolari.

Borroka handia egin zuen eskola Solokoe-txeko lokaletara aldatu zezaten eta hil zen urte berean lortu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak eskaria onartzea. Ordura arte, Merced kaleko pisu txiki batean eta Gordoniz kaleko hotel batean eman behar izan zituzten klaseak, errentan.

Haren bizitza luze-zabal ikertu du Jose Maria Otermin kazetari eta idazle amezketarrak. Herriaren historiari buruzko hiru liburu argitaratu ditu dagoeneko eta laugarrenarekin ari da orain lanean. Horietarako dokumentazio bila izan du Juliana Agirrezabalaren berri. Aztertu dituen dokumentuei esker dakigu,

“Maistren Goi Mailako eskolaren garrantziaz jabetu zen eta bere ekarpena izugarria izan zen, gizartea alfabetatzearen alde lan handia egin zuen”

Gurutze Ezkurdia, Garaian taldea



adibidez, Valladoliden (Espainia) irakaskuntzaz egin zituzten hainbat ekitaldiren ahotsa eta antolatzailea izan zela eta Tolstoi idazle errusiarrak sortutako eskola eredua izan zuela hizpide. Ikasle bakoitzak berezko duena askatasunez bilatzean zetzan Tolstoiaren eskola eredua. “Irakasle ororen zeregina da molde eta errutina apurtzeko beharra sorraraztea ikasleengan”, zioen Agirrezabalak.

Ikaskuntza metodoez diharduen *Conversaciones instructivas y morales* liburuan (Ana María Molinero, 1896) ere hartu zuen parte; hitzaurrea idatzi zuen. Liburuak arrakasta handia izan zuen irakasle eta hezitzaileen artean eta urtebeteren buruan bigarren edizioa kaleratu zuten.




Ezkerreko orrialdean, Juliana Agirrezabala Pagola, Somorrostro blogetik hartutako irudian. Goian, 1915ean Solokoetxeko eskolako ikasle eta irakasleak. Eskuinean, Jose Maria Otermin kazetari eta idazle amezketarra.

Oterminen hitzetan, irakaskuntzan eta pedagogian egin zuen lana da amezketarraren alderdirik aipagarriena, baita bere jaioterriko kultura eta kultura unibertsala uztartzeko ahalegina ere. Garaiko hezkuntza munduan erreferente izateaz gain, idazten ere oso iaioa zela nabarmendu du kazetariak. Euskal hemerrotekan 1902 eta 1903 urteetan kaleratu zen euskarazko *Ibaizabal* aldizkarian, Juliana Agirrezabalaren hainbat argitalpen aurki daitezke, batez ere irakaskuntzari lotuta. Nahiz eta gaztetan Bizkaira joan zen, haren lanetan gipuzkera nagusi dela aipatu digu Oterminek.

Areto bat Agirrezabalaren omenez

2011n, Leioako Irakasleen Unibertsitate Eskola berria inauguratzearekin batera omenaldia egiteko asmoz, eraikineko areto nagusiari Juliana Agirrezabala izena ipini zioten. Hezkuntzaren historia ikertzen duen Garaian taldea dago erabaki horren atzean, Irakasleen Eskolako zuzendari eta Garaian taldeko kide Gurutze Ezkurdiak dioenez, irakasle kultura eta ekintzailea baitzen amezketarra: “Maitaren Goi Mailako eskolaren garrantziaz jabetu zen eta bere ekarpena izugarria izan zen,



gizartea alfabetatzearen alde lan handia egin zuen”. Gaineratu duenez, gizartean oihartzun handirik izan ez arren, unibertsitate honetako ikasleek badute haren bizitzaren eta ekarpenen berri, aretoaren izena dela-eta.

Aitorren Alaba

Bitxikeria moduan, J.A. Aitorren Alaba izenez sinatu zituen artikulu asko. Oterminen iritziz, hastapenetako euskal nazionalisten artean ibili izanak bultzatu zuen sinadura hori erabiltzera. Gauza jakina da Sabino Arana eta Agirrezabala elkarlanean aritu zirela. 1895ean, hain zuzen, artikulu bat idatzi zuen Aranak, Euskal Herrian Espainiako Gobernuua inposatzen ari zen hezkuntza ereduaz kexu: *Protesta pedagogikoa maketila*. 24 irakasle sinatu zuten artikulua babesten, horien artean amezketarra. ■



Liburu azoka

Donostian, ekainaren 27tik uztailaren 13ra Gipuzkoa plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



BAIETZ **1.000** EROSLE LORTU! **DVD BERRIA!**

🌐 Ene kantak ekimena DVDa prestatzen ari da, Euskalerria Irratia diruz laguntzeko xedearekin.

🌐 Haurrentzako 20 kanta berri eta beste horrenbeste bideoklip grabatu ditugu jada, hainbat lagunekin:

Fermin **Muguruza**, Ruper **Ordorika**, Imanol Ubeda **Bide Ertzean**, Mikel **Urdangarin**, Fran eta Zuriñe **Hesian**, El **Drogas**, **Kutxi** Romero, Manolo **Garcia**...

🌐 DVDa dendetan salgai jarri ahal izateko, laguntza behar dugu. Fisikoki jaso aurretik DVDa erosiko diguten 1.000 lagun behar ditugu.

DVD-A EROSTEKO: VERKAMI.COM
vkm.is/emanbideaeuskalerriairratia



euskalerriairratia
.com

Aginaga biziberritzeko proiektua

2013ko udazkenean amaitu zuten Aginagako (Usurbil) bizilagunek eliza zaharra eraberritzen. 60ko hamarkadan eliza berria eraiki zenetik, zaharra elkargunerako erabiltzen hasi ziren, harik eta 1992. urtean bigarren solairuko zorua erori zen arte. Auzolanean egindako eraberritzearen ostean, erabilgarri dago berri.

| LIDE HERNANDO |



ELIZAN kontzertuak eta jaietarako txosnak antolatzea ez da ohikoa. Usurbilgo auzoan, ordea, hainbat hamarkadatarako tradizioa da. Aginagak betidanik izan du herri izaera indartsua eta eliza zaharrak elkargune funtzioa bete du 60ko hamarkadatik. Besteak beste, Kaotiko edota Su ta Gar taldeak aritu dira bertan.

Udalak egiten ez badu, guk egingo dugu

“Hainbat urtez erabili dugun arren, azken urteotan eliza zatika erortzen ari zitzaigula ohartu ginen –dio Aritz Aranburu aginagarrak–, paretak erortzen ari ziren, itoginak genituen, leihoak hormatuta zeuden. Usurbilgo Udalari konponketak egiteko eskatu genion behin baino gehiagotan, baina ez zegoen haien lehentasunetan, eta lana atzeratzen ari ziren”. Azkenean, 2009. urtean, auzotarrek erabaki zuten euren emango zutela urratsa.

Hala, Bidean Agiñarron Herri Elkartea sortu zuten, gazte eta helduak biltzen dituen. Herriko bi eraikuntza enpresa konbentzitu zituzten konponketa lanetarako materiala uzteko eta aholkularitza lanak egiteko. Horren ostean, euren proiektua txosten batean bildu eta gero, Udalak konbentzitzea ere lortu zuten. Bizilagunek auzolanean dirua bildu bazuten ere, Udalak ordaindu zizkien enpresaren gastuak. “Konponketa lan guztia, ordea, herritarron artean egin dugu –azaldu du Aranburuk–; erremintak hartu eta egin ahala ikasi dugu”.

Argazkietan, Aginagako eliza, konponketa prozesuan eta eraberritua. Egunerokoan erabiliko den zentro bihurtu eta guztientzako jarduerak egin nahi dituzte bertan. Goiko solairua berreraikiko dute orain.

2013ko otsailean hasi zituzten lanak eta sei hilabetetan lehenengo erreforma amaitu zuten. Inaugurazio bazkaria egin zuten, eta ordutik, Aginagako elizak aurreko elkargune funtzioa bete du. “Egunerokoan erabil daitekeen zentroa izatea nahi dugu. Lehenago zuen festarako funtzioaz gain, ekintza kulturalak gehitu dizkiogu. Oraingoan poesia errezitaldiak, bertso afariak eta antzezlanak egin ditugu, baina gure asmoa da herriari bizia emango dion proiektu jarraiagoa egitea. Auzotar orok gozatu ahal izango dituen jarduerak egin nahi ditugu, hala nola adinekoentzako pilates eskolak edo haurrentzako babesgunea”.

Asmoak asmo, halako proiektu bat sortu eta mantentzea lan zaila dela aitortu du auzotarrak. “Horrelako egitasmoen motorra gazteok izan ohi gara, baina guk ere lan eta okupazio asko ditugu urtean zehar, eta ezin diogu nahi adina denbora eskaini. Bestalde, orain arte borrokarako eta jairako gunea izan denez, zaila egiten ari zaigu adin ezberdineko eliza ere euren dela adieraztea. Pixkana-lak lortuko dugula uste dugu”.

Konponketaren bigarren fasean sartzear dira aginagarrak. Goiko solairua berreraikitzeke helburuz, dirua crowdfunding bitartez lortzea espero dute. “Eta horretarako, kanpoan Aginagaren irudia ezagutarazten ari gara. Jendeak gure proiektuan sinesten badu, laguntza emango dio”. ■





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Europar Batasun erreala

SVITLANAK ETA OLGAK gazteentzako elkarte bat sortu zuten Europar Batasuneko (EB) *Youth* programan parte hartzeko (egun *Erasmus +*). Programak diru-laguntzak ematen ditu Europako gazte elkarrekin topaketak antolatzeko. Aitzakia trukaketa kulturala da, hau da, EBk ordaindutako bidaiak eta parrandak herrialde desberdinetako jendearekin. Unibertsitateetan Erasmus egonaldiek duten fama horren muturreko bertsioa litzateke *Youth* programa, ikasketak ez daudelako tartean eta diru asko ematen delako astebete inguruko ekintza bat antolatzeko. Askotan topaketa antolatzen duen elkarteak (harrera herrialdekoak) etekin ekonomikoak lortzen ditu, ekialdeko herrialdeetan diru hori asko izan daiteke beraien maila ekonomikorako. Olgak 23 urte ditu eta elkarerako lan egiten du EBetik jasotako diruari esker, Ukrainako batez besteko soldata bikoiztu egiten du bereak.

EB inperialismo ekonomikorako tresna bat da, asunto militarretan AEBetako maiordomoa eta demokratikoki liliputar bat. Bitxia, munduan zehar demokrazia sustatu nahi omen duen erakunde batek (batzuetan estatu kolpeak babestu arren, Ukrainan bezala) demokrazia dentsitate oso baxua du

Ukrainar gazte hauek ondo erakutsi dute EBko marasmo burokratikoan dirua eskatzeko gaitasuna dutela. Horrelako jendeak izpiritu kritikoa garatzen badu arriskutsuak bilakatu daitezke sistemarako, baina nekez izango dira EBrako, ez beraiek ez eta *Youth* programetan parte hartu duten gazte gehienak ere. Antzekoa esan daiteke Erasmus programetan parte hartu duten ikasleek eta irakasleek. EBk ondo daki non inbertitu dirua, besteak beste, unibertsitateetatik aterako dira biharko agintariak, kazetariak, irakasleak eta intelektual gehienak. Lituaniar unibertsitateko irakasleek soldata oso baxuak dituzte, horregatik, EBko dirua lortzen iaioak dira. Bereziki Erasmus programa

atsegin dute, honi esker astebetez Europako unibertsitate batera bidaiatzeko aukera dute gastu guztiak EBak ordainduta.

Hamarkadak eman ditu EBk intelektual, kazetari, elite eta politikarien kritikarako gaitasuna biguntzen eta europar utopia elikatzen diruaren bitartez. Arrakasta berezia izan zuen Sobietar Batasuna erortzeagatik umezurtz gelditu ziren ezkerreko alderdien artean. AEBetako militarismo eta eskumako politikaren aurrean bazirudien progresista eta demokratikoen EB zalea izatea zela. Baina, Europar utopia hori ez da existitzen, garai batean “sozialismo erreala” esaten zen bezala, bada garaia “EB erreala” hitz egiteko eta ez amesten dugunaz aritzeko soilik.

EB inperialismo ekonomikorako tresna bat da, gai militarretan AEBko maiordomoa eta demokratikoki liliputar bat. Bitxia, munduan zehar demokrazia sustatu nahi omen duen erakunde batek (batzuetan estatu kolpeak babestu arren, Ukrainan bezala) demokrazia dentsitate oso baxua du. Gure politika publiko asko diseinatu eta beste batzuk baldintzatzen ditu, baina, hala ere, europar herritarrok dugun kontrol demokratikoa eskasa eta zeharkakoa da. Erabakiak estatuetakoa gobernuek hartzen dituzte batzordean eta ministroen kontseiluan, europarrek bozkatu ez ditugun bi erakundeetan.

Politikari “europar zale” gehienek *Euro-pa gehiago* eskatzen dutenean estatuei soberania gehiago kentzea eskatzea dute eta hauek demokratikoak diren heinean, Europa gehiago eskatzean demokrazia gutxiago eta erabakitze esparruak herritarrengandik urruntzea eskatzen dute. Horri erantsi burokrazia eta erabakiak hartzeko garaian dagoen gardentasun falta eta oso ondo ulertzen da zeinen erraza zaien neurri neoliberalak inposatzea. Hauen aurrean, EBtik dirua eta pribilegioak jasozen ez dituzten klase apaletako jende askok, demokrazia eza eta neurri neoliberalak sufritzen dituzten berberak, beren haserre erakutsi dute abstenituz edo alderdi euroeszeptikoei botoa emanez. Bitartean, ezkerreko politikari askok asaldata eta beraien elitismotik ez dute ezer ulertu nahi izan. ■





Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA ♦



INIGO AZKONA

Petrolioa, ez dago gure esku!

EGUZKIPLEAN. Ataunen, Gipuzkoako ertzeko herrian tokatu zitzaigun eskuak lotzea gure herriaren erabakitzeko eskubidea errebendikatzeko. Bizikletazale talde batean murgildurik jai giro ederrean ibili ginen, musika eta kantuen laguntzaz. Eguzkiaren izpiak eta beroa ez ziren arazo izan, jende andanaren mobilizazioak poza ekarri baitzigun ilaran egondako guztiei. Pozgarria da, Europako hauteskunderen osteko koiuntura politikoak eta Espainiako erregearen abdikazioak azken ukitua eman baitiote sistema politikoaren krisiari. Badirudi Espainiako trantsizioaren sindromea gainditzen ari garela eta bere partidu politiko nagusiak zein bere instituzio gorenak, monarkia kasu, eztabaidagarriak izateaz gain, kolokan jarri daitezkeela beldurrik gabe.

ENERGIA. Hauteskunde europarrerako kanpaina eskasean gutxi eztabaidatu da energiaz. Kanpaina hasi baino lehen jakin genuen Madrilgo Gobernu eta Nuclenor (Iberdrola + Endesa) Garoñako zentral nuklearra berrirekitzeko saioak egiten ari zirela. 15 urte gehiago (43 urte ditu zentralak) funtzionatu ahal izateko 100 milioi euro baino gehiago inbertitu beharko dituzte konpontze —eta segurtasun— lanetan. Arabako Partidu Popularrak ez du ontzat eman jokaldi berri hau eta EAJk aldiz haustura hidraulikoaren

(fracking) aurka dagoela baieztatu nahi izan du Europako hauteskunderen ostean. Nola ez. Energia politikaren bi gai hauek polemiko samarrak izan dira azken urteetan eta emaitza elektoralak oso adierazgarriak izan dira. Eta nire galdera da, energia nuklearrik gabe eta fracking bidezko gas metanorik gabe, nondik lortuko dugu energia?

HONDAR PETROLIODUNAK. Estreinakoz Europa osoan, Repsol-Petronor enpresak Muskizen duen findegira Kanadako hare bituminosoak heldu dira, hots, petrolio astuna eta kutsakorra Ipar Amerikatik erosi dute. Eta horrek adierazten du gure eredu energetikoaren norabide galdua. Muskizen dagoen findegia, askotan erraustegiekin gertatzen den moduan, materia behar dute martxan egoteko eta urrunetik ekarri behar bada, hori kutsakorragoa izateaz aparte, ez da ekonomikoa izaten.

Koke planta berriak petrolio “zikin” horiek fintzeko balio du baina etekin ekonomikoa ateratzeko ez dago hain argi. Petronor kolokan dago, oso. Horregatik, giro politiko berrian energia politikaren ildoak eta eztabaidak sustatu beharra daukagu. Independentzia energetikoaren ziria bukatu da eta eguzkia dugu iraunkortasunerako bide bakarra. ■

Nire galdera da, energia nuklearrik gabe eta frackingaren gas metanorik gabe, nondik lortuko dugu energia?



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Memoriaren kapsulak

NOSTALGIATIK eraikitzen den herri bat, edo bizitza oso bat kasu, ez da eraikitzen den zerbait. Nostalgian bizi garenok, 80ko hamarkada bizi nahi izan genuen belaunaldi frustratuak ez du topatzen usu, gaurkoan egin nahi duena. Bihar ordea, nostalgiaz begiratu dugu atzera.

Memoria kapsulak behar ditugu baina, igarotakoa, gogoratzeko baino, gogoratzen dugunaren ustea egikaritzeko. Armariak batzuetan, kaleen izenak, historia propioa dioten liburuak, argazki gogoangarriak, une historiko-epikoak. Giza kateak, bozak irabaztea, diskurtso hura, Erret Etxeari bizkarraren ematea, plazerez abortatzea.

Apeta nostalgikoekin eraikitzen dugu oraina agian, baina badakigu jakin, memoria kapsulak behar ditugula geroan gaurkoa nahi dugun bezala gogoratzeko. Solik “*Dakienak badaki/nora dijoan jakiteko/behar duela/nondik datorren jakin*”. Eta orain, basoak eraitsi dizkigute, sortu berri ditugun memoria kapsulak eraitsi nahi dizkigute, hala ustea baitute, behin gauden lekuan gaudela ahaztua izango dugula nondik gatozen.

Ez dakitena da, aspaldian ikasi genuela memoria gorpuzten. Eta hori ezin diotela eraitsi herri bati, bizitza oso bati, gorputz bati. ■





Ivan Gimenez

♦ KAZETARIA

1936ko gerrarik gabe, *Ehun urte bakardadean ez?*

EZ DUT INOIZ *Ehun urte bakardadean* berriro irakurriko. Zoriontsua izan zareneko lekuetara ez baduzu itzuli behar, orduan, Macondora ez naiz berriro hurbilduko. Hobe da mitoak pertsonalki ez ezagutzea, zer gerta ere... 16 urterekin liluratu gintuzten liburuekiko harremanak ez dira berreskuratu behar. Dena den, ez ginateke berdinak izango liburu hori irakurri gabe.

Nola esan. Behin irakurrita, modu inozoagoan begiratzen dugu mundua, eta uste dut ez dela txarrrako izan. *Ehun urte bakardadean* argitaratu gabe, mundua leku grisa-goa eta tristeagoa litzateke. Beraz, esan daiteke liburu horrek mundua hobetu duela, neurri apalean bada ere. Hala ere, Gabok eleberria idazteari uztear egon zen, ez omen zuelako hasiera on bat aurkitzen, pertsonaiak ez omen zitzaizkiolako burura etortzen, eta eguneko beharrak asetzeko dirurik ez zeukalako: bi seme-alabak eta emaztea, baina diru-sarrerik ez. Kotxea eta etxetresnak bahituraren eman behar zituen idazteari eusteko, erlojupeko lasterketa eroan murgilduta, bere familiaren pobrezia nola larriagotzen zen ohartuz, baina bere egin-kizun madarikatu hori ezin utziz.

Bere lagunaren laguntza hil ala bizikoa izan zen, literalki, eta literaturaren mesedetan. Haien artean Jomi García Ascot eta María Luisa Elio gertuenak ziren, Gaboren seme-alabez arduratzen eta García-Márquez familiari eguneko bizigaiak ematen. Jakina denez, *Ehun urte bakardadean* bikote horri eskainia dago.

María Luisa Elio izan zen eskuizkribua irakurtzen aritu zen lehen, esaldiz esaldi ia-ia. “Nahi badu-

zu, liburua zurea da”, aitortu zion Gabok. Hori dena 1965ean eta Mexikon gertatu zen, Kolonbiatik urrun, baina Iruñetik are urrunago. Iruñea? Bai, María Luisa Elio iruindarra zen, abokatu errepublikano baten alaba. 1936ko kolpe faxistaren ondorioz, bere aitak ezkutatu behar izan zuen hiru urte luzez, La Meca zahar-etxeko zoko ilun eta estu batean, armairu batean giltzapeturik. Hortik 200 metrora, goize-ro entzuten zituen fusilamenduen hotsak, Gaztelubideko harresietan.

Gerra bukatuta, familiarekin elkartu zen Parisen, eta Mexikora atzerriratu ziren, 30 urte geroago García-Márquezen auzokideak izango zirela susmatu gabe. María

Bere lagunaren laguntza hil ala bizikoa izan zen, literalki, eta literaturaren mesedetan. Haien artean Jomi García Ascot eta María Luisa Elio gertuenak ziren (...). Jakina denez, “Ehun urte bakardadean” bikote hori eskainia dago

Luisa Elio neskatoak ez zuen jakiterik *Ehun urte bakardadean* gauzatzeko konplize ezinbestekoa bihurtuko zela.

Agian, emakume iruindar hura gabe –36ko kolpe faxistak atzerri-raturik–, gaur ez genuke Gaboren maisulana irakurtzeko aukerarik izango.

Eta mundua okerragoa (edo gaiztoagoa) izanen litzateke. Agian. ■



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali

«Funtsezkoa da sortzaileek argazkigintzatik haragoko proiektuetan parte hartzea»

Durangoko Begira Photo jaialdiak laugarren edizioa beteko du aurten, argazkigintza garaikidea bultzatzea eta erakustea xede duela. Leo Simoes iurretarra dugu jaialdiko zuzendaria, argazkilari ezaguna, bere ofizioan konprometitua. Zortzi erakusketa izango dira Begira Photo jaialdian, eta hitzaldiek, elkarrizketek eta hiritarren partaidetzak osatuko dute aurtengo egitaraua, ekainaren 10etik 29ra. Kinua Argazki Elkartearen ekimenez antolatzen da.

| MYRIAM GARZIA |

Nola definituko zenuke aurtengo Begira Photoren egitaraua? Zein du azken helburua?

Egitaraua oso osatua egin dugula iruditzen zait, eta espero dugu oharkabea ez dela pasako. Begira Photoren azken helburua argazkilaritza garaikidearen zabalkundea eta ezagupenean laguntzea da.

Zortzi egileren erakusketa, hitzaldiak, ikus-entzunezkoen proiektzioa, hiritarren parte-hartzea bultzatzen duten ekimenak... Begira Photo jaialdia argazkigintzaren erakusketatik harago doan jaialdia dugu.

Begira Photok kultura fotografikoarekiko interesa bultzatzen du, erakusketek horretan laguntzen dute, eta jaialdiaren ardatza dira. Baina argazki sorkuntzarekiko interesa duten pertsonak, eta publiko orokorra erakartzeko hainbat ekitaldi ere antolatu ditugu. Argazkilaritzaren gaineko ekimenak eskaintzeaz gain, zinema, bertsolaritza, antzerkia eta musika ikuskizunak ere antolatzen ditugu jaialdiaren barruan.

Zerk bultzatu zaitu Begira Photo jaialdiaren agintea hartzera? Argazkilari gisa baduzu ibilbide bat egina.

Urteak daramatzat argazkiak egitetik harago doazen proiektuetan parte hartzen. Funtsezkoa iruditzen zait sortzailea bera izatea argazkigintzarekiko interesa pizten duten proiektu hauen partaide eta bultzatzaile. Begira Photo jaialdia dugu horren adibide garbiena.



ROUS BOISIER

Argazkigintzara jende gehiago hurbiltzea ote da jaialdi hauen helburu nagusia? Zaletu eta profesionalen arteko topaketa? Komunitatea osatzea?

Jaialdi hauek beharrezkoak dira argazkigintzaz gehiago jakiten laguntzen badute, eta gehiago hitz egitea, hobeto ezagutzea eta argazkia mirestea baldin badakarte. Argazkiaren kulturarekiko eta sorkuntzarekiko

interesa duten pertsoneri zuzentzen gatazkie, baita argazkigintza ikasketak tresna gisa edo entretenimendu gisa uletzen dutenei ere. Begira Photo jaialdiak publiko espezializatuarengana jotzen du, argazkilari, sortzaile, komisario, argazkilari kolektibo edo elkarte, arte ikasle, eta gainerakoengana. Baina publiko orokorra ere oso gogoa izan ohi dugu. Kalitatezko argazkilaritzaren eskaintza zabal jarri nahi dugu agerian, eta honen inguruan kritikarako, eztabaidarako eta hausnarketarako espazioetara sarbidea eskaintzen dugu.

Teknologia berriek erabat aldatu dute argazkigintza. Ona ala txarra da argazkilarientzat?

Beste lantresna bat da, beste osagai bat. Hala ere, argazkilaritzan garrantzitsuenak begirada da, eta kontatzeko ezer izatea. Oso gauza gizatiarra eta ordezkazina teknologikoki!

Bestearen begirada beharrezkoa du argazkiak?

Ikusleek sorkuntza prozesua ixten dute, bada sorkuntza lanik ikusmirarik gabe?

Ikusten ez denari ere argazkia egin dakioke?

Zer da errealitatea? Argazkia ez da. Argazkia fikziotik gertuago dago. Argazkilaritzak mundua dakusa bere optikatik. Mundu berri bat sortzeko balio du argazki batek.

Zeintzuk dira disziplina honen azken joerak? Kasu egin behar zaie joerei?

Argazkigintza zintzoa egin behar da, barrutik ateratzen zaizuna.

Euskal herritarren argazkilaritza nagusi da Begira Photoren programaren barruan. Zein da gure argazkilaritzaren osasun egoera?

Hemengo argazkilaritzari erreparatu diogu, baina nazioarteko izaera garbia du jaialdiak. Aurtengo jaialdiaren zutabeetako bat euskal argazkilari gazteen lana da. Lan egin beharra dago, zintzoki, modu serio eta konprometitu. Tinko. Hortik helduko da sorkuntza lan ona.

Begira Photoko zortzi erakusketak



Erretratuak. Argazkilariak: Carlos Avello, Rayen Palacios, Adrián Arias, Carolina Panozo, Xabi Lumbreras.



Butterfly Days. Bego Antón. Gizakien eta tximeleten arteko maitasun istorioa dakar.



Cabanga. Godzilla. Bilbotarraren lana azokan izango da ikusgai, ekainaren 10etik 29ra.



Bosnian Déjà Vu. Goiuri Aldekoak Europako hirugarren herrialde pobreenean egindako irudiak.




Desplazamiento. Garazi Erdaide durangarrak oroimenaren kontzeptua esploratzen du, eta horren erlazioa argazkiekiko.



Surrounded. Helena Goñi. Hiri handi batera iritsi berri denaren bilaketa eta aurkikuntza pertsonala da erakusketa, egilearen hitzetan.



Perdida. Rous Boisier txiletarrak memoriaren galtzea landu du bere amaren bidez: "Bere baitan zegoela, ulertzen eta zaintzen saiatu nintzen".



Ero. Segun Lazkano. *Ero* egoera mentala dela dio egileak. Bilduma honetan gizaki bereziak aurkituko ditu ikusleak.

Aurten laugarren edizioa duzue. Nola eragin die Durangoko eskualdeko biztanleei? Zer aurkituko dugu Durangora hurbiltzen garenok?

Horixe da jaialdiaren helburuetako bat: argazki sorkuntza mirestua izan dadila. Horretarako, kalitatezko argazkilaritzara hurbiltzeko modua erazten dugu, zenbait eremutan dagoen argazki sorkuntza erakutsiz. ■



Arbasoekiko lotura eta etorkizuneko ohitura

Ia 300 dantzek mugimendua, aniztasuna, identitatea eta historia azalduko dituzte Nafarroako Dantzen Atlasean. Bizirik daudenek, hildakoek zein bidean jaiotakoek babestuko dute utzitako ondare ez materiala. Hala ere, Euskal Herrian dantzaren inguruko ikerketa, ezagutza eta transmisioan zenbat jende ibili den ikusita, ez da zalantzarik: euskal dantza aspaldi hartu zen ondareztat.

| AINHOA MARIEZKURRENA |

DANTZA mugimenduan dagoen gorputza baino gehiago dela sine-tsita, jauzi da proiektu honekin Ortzadar Euskal Folklore Elkartea. Berrogei urte beteko ditu aurten eta haietako hamabi, ideia hau lantzen daramatza. UNESCOk aiereratutako ondare ez materialen barruan txoko bat eskaini nahi zioten euskal dantzari. Nolabaiteko babes emateko asmoz, dokumentazio prozesu bat jarri zuten martxan, gaur Nafarroako Dantzen Atlasa deitu diotena.

Zerrenda bat osatuz hasi zuten bidea, baina helburua inbentarioa egitea baino sakonagoa dela nabarmendu du Karlos Irujo elkarteak. Dantzan eta ez dantzarian jarriko dute fokua, bakoitzari fitxa bat ireki eta modu “erakargarrian” plazaratuz. Izena, geokokapena, garapena, azalpena, argazkiak, bideoak, jantziak, partitura eta musika definituko dira. Erabilera pedagogikoa izango duela ziurtatuta, dantzariari, ikertzaileari, kultura maitaleari, argazki zaleari eta jakin-mina duen orori zuzendutako ataria izango da.

Nafarroako dantza asko herriko bihurtu dira Euskal Herriko gaitortzeko herrialdeetan: Lantzeko zortzikoa, larrain dantza, bolanten martxak, jauziak... XX. mendearen hirugarren hamarkadan Bizkaiko dantzak zabaldu ziren bezala, orain eragina ekialdetik datorrela adierazi du



Murchanteko Dorrea.

Irujok. Historia edo orografia kontua dela eta, Nafarroak beste jendarteekin errazago kontaktatu du eta mugimendu kulturala ekarri die. Hortik omen dator dantzetan ematen den aniztasuna: “Beharbada horregatik iraganean baino garrantzi handiagoa dauka orain Nafarroak”. Horrela bada, ‘euskal’-ek geografia, administrazioa edo kultura definitzen ote duen zalantzan, atlasak euskal dantzak jasotzen dituela adierazi du Irujok: “Nafarroa Euskal Herria da eta, beraz, euskal dantzak agertuko dira bertan, jatorri desberdinetakoak izan arren”.

Dantzak fitxategi bihurtu eta webgunea eratzen ari dira orain. Ilusioz baina kostata ari dira lana aurrera ateratzen: “Gure denbora librean ari gara lanean eta idatzi, zuzendu eta argazkiak bilatu behar ditugu. Amateurrak gara, gainera... Lan mardula”. Atlasa publiko egiteko gutxienez hamar dantzen fitxak prest izan nahi dituzte eta ekainerako sarean erabilgarri egotea espero dute. Hala ere,

bakoitzaren xehetasunak erabilgarri izatea luzerako lana izango da.

Ortzadarren ibilbide luzeak eman dien jakituriaraz gain, liburutegiak arakatzen zein



aurretik egindako ikerketak miatzen ibili dira azken urteotan. Hala ere, auzolanean gauzatzen ari diren proiektua dela azpimarratu du Irujok, atlasa denona eta denontzat izatea nahi dutela, identifikatzeko eta eman diren aldaketak jakiteko ezinbestekoa delako protagonisten partaidetza. Era berean, zerrenda sekula itxiko ez dela baieztatu du: “Abiapuntu bat besterik ez da. Hemendik aurrera ziberauzolana egin beharko dugu”.

Aldaketak guda leku

Tradizioa identitatea eta gure arbasoekiko lotura gisa ulertzen da. Baina gaurko munduari eta balioei ongi badatorkie soilik biziraungo duela dio Irujok: “Erabiltzen den jendartearen orainaz mintzatzen da tradizioa”. Hortaz, eguneratzeak tradizioarekin zerikusirik baduela dio, hori baita eguneratzen dena. Eta baita etorkizunarekin ere, “ondorengoei erakusten diegulako nolakoak garen adierazpen horrekin”. Halaber, atlasak dantzek izan dituzten aldaketak jasoko dituela azpimarratu du.

Belaunaldiz belaunaldi gaur arte iritsi diren dantzak erraz identifikatu ditu Ortzadar Elkar-teak. Jendartearen beste elementu askok beza-la dantzek aldaketak izaten dituztela gaineratu du, tradizionalak izaten jarraitzen duten arren: “Corteseko dantzak emakumeek ere dantzatzeko dituzte orain, baina horrek ez dio izaera

Otsagabiako neskak.

tradizionala kentzen”. Fitxa bakoitzak landuko duen garapenaren barruan aldaketa guztiak sartuko direla adierazi du: jantzien garapena, mugimenduen... “Gizartea banatzen denean sortzen diren irtenbide berriak, tradizio hitza eta dantza guda-leku bilakatzen dira. Aspalditik ematen den borroka hori ere agertuko da atlasean”, aipatu du.

Maisuek urtero dantza eta doinu berriak sortzen dituztela kontuan izanik, etengabeko aldaketak gertatzen direla gaineratu du: “Dantza baliagarria denean erabiltzen da. Gurean oso egoera zailean heldu ziren XX. mendera. Baina jendartea aldatzen doa eta horrek mantentzen ditu bizirik”. Dantza dantzariak gauzatzen dute eta orain arteko material grafikoetan “tamalez” gehiengoak gizonen zkoa dela adierazi du. Hala ere, emakumezkoen partaidetza handiarekin dokumentuak sortuko dituzte.

Garai batean egiten ziren dantzak gaur bihurtu dira tradizionalak eta, beharbada, gaur ere tradizioa sortzen ari da. Jendearen “manifestazio espresibo” gisa ulertuta, antzak dira orain atera daitezkeen argazkiak. Tradizio batzuk galdu eta besteak sortu egiten dira. Orain arte biziraun dutenak, berreskuratutakoak zein bidean asmatutakoak batuko ditu Atlasak, “zilegitasunik kendu gabe”. ■





Helduen Literatura

Tractatus
Jule Goikoetxea
Susa, 2014

Mozorroa erantzi

JULE GOIKOETXEARENtzat humanitatea da zentzu-gabekeriaren gainean zuzen, tente ibiltzeko sofistikazio bat. Lerro zuzenari jarraitzeko ezgai, liburu bat idatzi du trinkoa eta tapitua, bihotzera baino burura apuntatzen duten jaurtigaiak botatzen dituen. Topikoak eta paisaia ezagunak alde batera utzi eta poesia bitala eta gartsua idatzi du. Arriskatu egin du, eta kontzeptualki berritzaileak begitandu zaizkit *Tractatus* honetako hainbat hausnarketa liberatzaile. Batzuetan ematen du tratatu logiko-filosofiko bat poesiaren baliabideekin eraikia, arean ezkorra baina errenditzen ez dena. Aitaren heriotzak eta inoiz desagertzen ez den maitasunak utzitako hutsunea ulertzeko modu bat ere izan ei da *Tractatus*, Tomas Goikoetxeari amultsuki eskainia.

Idaztearen –bizitzearen beraren– pribilegioa ospatzeko modu bat eta galdera sakonak egiteko aitzakia, biak dira era berean *Tractatus*. Eta jarraitzen ez baditut betiko bideak? Eta egiten badut zer edo zer desberdina? Eta etika berriak estetika berria beharko balu egoki espresa gaitezen? Erosokeriaren eta anestesiarren kontrako mendeku literario legeaz, topikoak ez du lekurik liburuan: “Biolentziaren/ ordena sinbolikoa/ aita da.// Amaren/ ordena sinbolikoa/ biolentzia da”.

Matriarkaturik gabeko patriarkaturik gabeko alderdirik gabeko akademiarik gabeko ezkerrik

gabeko eskumarik gabeko liberazio bat da *Tractatus*. Haziz-haziz doan liburua da, aberastuz bidaiekin, sexuarekin eta amoralitate kontziente eta militante baten zapore gazi-gozoarekin. Urrun diren lekuetara eroango zaitu poesia erdi-enkriptatu honek, gauzak zuzenean barik zeharka eta bere baitan kiribilduz esatea nahiago duen estiloarekin, simplismorik gabe.

Ordena iraultzeko eta salaketa egiteko bide aski zuzenak hautatu ditu poetak. Zaunken antzeko erritmoa dauka berba pisutsu eta kontzeptu jasoen poesia modu honek. Lerro laburrak dira nagusi, metafisikaz kargatuak. Testu bat arina ezin lortu daiteke orde material astunokin, eta halabeharrez experimentua nahasi xamarra gertatzen da, arean hotza egin zait. Horrek ez du esan nahi ez duenik perlarik oparitzen noiz edo noiz, beltz eta eder: “glaziar bat ere badaukat/ adimena bezain kolonizatua/ milaka urte eta gero/ niregain urtzea erabaki duena”. Dena dela ezkutuan geratzen dira, lastima, puzzle aberatsaren pieza batzuk, estetika hutsetik eta hitz hanpatuetatik landa gehiago arriskatu eta hiztegi xamurragoa, gura bada konbentzionalagoa, ez erabiltzearen. ■

Igor Estankona



Udarako Zientziatxokoak EUREKAN!

■ 3 - 10 urte ■ Jangela zerbitzua
■ 8:30 - 15:30 ■ 11 txanda



www.eurekamuseoa.es | 943 012 478






Gizartea aldatzeko ariketa etengabea

90EKO HAMARKADAN sistemak ia guztia asimilatuta zeukan, eta horren barne musika undergroundaren zati handia. Hardcore-punk eszenak sorpresa gutxi eskaintzen zizkigun eta bat-batean Aragoitik hardcorea berrasmatu zuen El Corazón del Sapo izeneko taldeak. Musikalki ez ezik, musika estiloa baino bizi-jarrerara den honek zentzua hartu zuelako berriro; ezarritakoa ezbaian jarri eta suntsituz gizakia eraikitzekoa. Euskal Herrian ehunka bihotz berpiztu zituen eta taldea bera ere gure herriaz maitemindu zen. Hala, taldeko abeslari Fer Apoa euskalduna dugu aspalditik. Punk-rock-and-roll kementsuena euskaratu eta euskaldundu zuen Kuraia taldean aritu zen eta gaur egun musika industrial berpiztu duen Matxura taldean ere badabil. Baina bi proiektu horien artean, Kantabriako Kloakao taldeko kideekin eskola zaharreko hardcore-punk amorratuena egiteko Estricalla [hondamendia aragoieraz] sortu zuten.

Stop Control zigilu propioak ekoiztuta, kirola eta matxinada batzen dituzten hiru disko sukoi kaleratu dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz abestuta: *Gimnasia revolucionaria* bata, *Fuegos Olímpicos* bestea, eta orain, *Triple asalto mortal*. Zapatilla hutsa, eskola zaharrekoa eta odolustu arte haginka egiten duena. Taldea musikalki mingarria eta oldarkorra bada ere, hitzek gizartean irensten duguna eraitsi eta gizakia erdigune izateko kontzientzia pizten dute nabarmen. Hitz oso landuak dira Fer-enak eta bibliografia zabala eskaintzen du disko guztietan.

Hirugarren lan hau orain arteko borobilena da, hardcore-punkaren irmotasunari eta garraztasunari ederto eutsiz, ñabardura zein osotasun zabalagoa eskaintzen diona. Kloakao taldeko bi kide gelditu



Triple salto mortal
Estricalla
Stop Control, 2013

dira eta horiei Erantzun-eko Hodei eta Hartzak Blues Band-eko Erik gehitu zaizkie. Taldea bere onenean dago.

Rockbespierre 1793 abestiak hardcore-punka gainbegiratu eta bukaera industrial du. *Ra-Joy división 1312 and his fascists dogs* eskola zaharrekoa, hardcore amorratu da, distortsioak lagunduta. *Radio paranoika 99.00 am* kanta punk-rocketik hardcore metalerora egiten du salto. *68º infernuko suaren kluba-k* Fer-en marka laburbiltzen du hardcorea eta melodia tartekatuz. *397 días encerrado en un cuarto de baño* abesti bereziena da, intro intrigantea, 713^o Amor-en arrastoa, hardcorea eta heavya (barkatu, rock gogorra) uztartuz.

Biniloaren B aldea *Sal Paradise eta Dean Moriartyren 17. bidaia Martera* abestiak zabaltzen du, erritmo aldaketa eta melodia bereizgarriekin. *Opus diaboli 666* maldan beherako punk anfetaminikoa da. *Ziklo bat naiz* izenburuaren espresio bera. *2luzik* RKLren zigilua duen punk azkarra. Eta bukatzeko, pastelaren ginda, *The real terrorist and his 1001 weapons of mass oppression*: antzina DOA talde kanadarrak Dead Kennedys-eko abeslariarekin batera egin zuen maisu-lanaren haritik, Estricallak Jello Biafra gonbidatu eta antzeko emaitza lortu du, potentia, rockeroa, oinarri erritmiko oso sendoa duena eta bukatzea nahiko ez genukeena. ■

Iker Barandiaran



Gaia: intsektuak



JOHN SEVERNS

	V	P	I	D	
Z	N	B	R	O	
E	A	T	A	R	A
I	U	R	I	A	C
E	L	I	Z	A	K
T	T	R	U	K	A
U	X	U	S	A	L
O	R	R	E	A	L
T	A	O	U	G	A
	P	L	A	S	T
	I	R	A	Z	I
	Z	A	T	T	E



Half-a-Wind Show. Yoko Ono. Atzera begirako erakusketa

Non: Bilboko Guggenheim Museoa.

Noiz: 2014ko martxoaren 14tik irailaren 4ra.

Yoko Ono eta iraultza isila

“JAKIN EZAZUE iraultza isila gertatzen ari dela. Ez da eztdanarik, ezta zarata berezirik ere, baina errealitatea une oro aldatzen da, esandako hitz bakoitzeko”. Hau aipatu eta gero, Yoko Onok Amerikan oso bogan dagoen meditazio liburua gomendatu zigun, Guggenheim Museoa paratu duen *Half-a-Wind Show* atzera begirako erakusketaren prentsaurrekoan. Trajez jantzita, hego zabaleko kapela buruan eta betaurreko beltz handiek aurpegia estaltzen diotela, halaxe agertu zen aurkezpen jendetsuan.

Azken 50 urteko sorkuntza biltzen du atzera begirako erakusketa honek, berrehundik gora piezaz osatuta dago eta Bilboko Guggenheim museoko hirugarren solairu osoa hartzen du. 60ko hamarkadan egindako performanceen argazkiak, instalazioak, 16 mm-ko filmak, eguneroko objektuak artelan bihurturik, Plastic Ono Band musika taldeari eta sortzailearen ibilbide musikalari eskainitako aretoa...

Europar barrena biran dabil *Half-a-Wind Show* erakusketa. Inori ez zaio oharkabea pasako Yoko Ono, batzuentzat madarikatua da eta besteentzat miretua, baina inolaz ere arrastorik uzten ez duena.

Bilboko zenbait lekutan, hiriaren eguneroko paisaia eraldatzen duten hiru hitz jarri ditu sortzaileak: “Egin hegaz”, “Amestu” eta “Imaginat”. Euskaraz eta ingelesez daude idatzita. Ez da lehen aldia Yoko Onok espazio publikoan eragiten duenik. Antzeko baliabide artistikoa erabili zuen Richmond-en (Virginia, AEB), 1996ko erakusketan. Hitz horiek publizitate euskarritan jarri zituen orduko hartan. Guggenheim museo-ko aretoaren bateko paretan ere paratu ditu euskarazko hitzak. Sortzea



sortzeagatik, horrela ulertzen du Yoko Onok sorkuntza. Eta horregatik, askotan bihurtzen ditu eguneroko objektuak artelan, haien behin-behineko izaeratik haragoko esanahia eman guran. Kontzeptuaren bilaketa honetan, ez dira falta jarraibide zehatzak dituzten instalazioak, Gela Urdineko *Gertaera* bezalakoa, non gela urdindu arte, arratsaldeko argiaz edo, zain egon behar den. Edota gelaren ezkerrean jarritako iman indartsu batek eraikitzen duen espazio okerra, *Oreka* piezan. Eguneroko objektuak eraldatu eta mezuak igortzen dizkio munduari, sortzaileak adierazi zuenez.

Performanceak ere usu baliatu izan ditu Yoko Onok. Erakusketa honetan asko dira sortzaile estatubatuarrek egindako preformanceen argazkiak eta filmak. Gehienak, hala ere, 60ko hamarkadan egindako ekintzak dira. Esate baterako Londreseko Trafalgar Plazan egindakoa, Erresuma Batuen sinboloa den harrizko lehoi handia izaraz estaltzea lortu zueneko, 1967an. Lehen saioan poliziak debekatu zuen ekintza, bigarren saio bat egin eta, film bate-

rako ari zirela esanez, lortu zuen lehoia estaltzea Yoko Onok. Espazio publikoan esku-hartzea gustuko du sortzaile honek eta ekintzak argazkitan biltzea ere bai.

16 mm-ko filmak ere badaude erakusketa honetan. 5. *Filma (Irrifarra)* izeneko pelikulan adibidez, John Lennonek berak 51 minutuz eusten dio lehen planoari, irrifarre egiten duen arte. 4. *Filma (Ipurdiak)* izenekoak 80 minutu ditu eta ipurdien lehen planoak agertzen dituzten irudiz osatuta dago, zinemagintzaren xedea ezbaian jartzeko helburuz.

Yoko Onoren ibilbide musikalari eskainitako aretoa dugu erakusketa honen beste ataletako bat. John Lennonekin batera, bakarka edota Plastic Ono Band taldearekin grabatutako biniloen azalak, eta kontzertuen grabazioak ageri dira areto honetan. 1962an hasitako ibilbide luzea du Yoko Onok, 2012an Kim Gordonekin batera (Sonic Youth) argitaratutako diskoa ere barnean du. ■

Myriam Garzia



Meningitisa: gauzak argitu nahian

GARUNA ETA ORNO-MUINA estaltzen dituzten mintzen narritadura eta hanturari esaten zaio meningitis. Egitura horietan lesioak moteltzeko funtzioa duen likido zefalorrakideoan aldaketak eragiten ditu gaitzak. Likido hori garrantzi handikoa da meningitisaren diagnostikoan, haren itxura nabarmen aldatzen baita gaixotasuna mikroorganismo mota batek edo besteak sortu.

Beste arrazoi batzuk ere badiren arren (medikamentuekiko alergia, onddoak, tumoreak...), esan daiteke meningitisa bi eratakoa dela kasurik gehienetan:

Birala arrisku txikikoa izaten da, eta inolako tratamendurik gabe sendatu ohi da, bere kasa. Enterobirusak eta herpes birusa izaten dira sortzaileak gehienetan. Bost meningitis kasutik lau mota horretakoak dira.

Meningitis bakterianoa askoz ere larriagoa da. Gorrieria, ikusmen-galera, hidrocefalia, garuneko kalteak eta kasu batzuetan heriotza eragin ditzake. Pneumokokoa eta meningokokoa dira gaixotasuna sortzen duten bakteriorik arriskutsuenak. Meningitis kasu guztien %15 inguru dira bakterioek eragindakoak.

Sintometakoren bat nabaritu bezain laster onena medikuarengana joatea da, hark diagnostikoa ziurtatu eta neurri egokiak har ditzan. Edozein adineko pertsona erasan diezake meningitisak, baina usuagoa da haurrengan eta 30 urtez azpiko helduengan. Ulertzekoa da gurasoentzat etengabeko kezka iturria izatea, inguruan kasuren bat aipatu orduko seme-alabek gaitza harrapa-

tuko duten beldurragatik. Noraino da larria, ordea?

Bakterio-meningitisaren sintomak

Bakterio-meningitisa gaixotasun larria da, eta berehalako ospitaleratzea eskatzen du. Sintoma batzuk aski arruntak diren arren, badira espezifikagoak ere, aurrekoekin



Meningitisa ziurtasun osoz diagnostikatzeko ziztada lunbarra egiten da.

batera medikuari diagnostikoa egiten lagunduko diotenak: sukarra eta hotzikarak, goragaleak eta gorako bortitz samarrak —liburuetan eskopeta tiro baten modukoak bailiran deskribatzen dira—, buruko min handia, argiarekiko sentiberatasun handia, asaldak egoera mentalean, zurruntasuna lepoko aldean edo garondoan.

Zenbat eta denbora luzeagoa gaixotasuna hasten denetik tratamenduari ekin arte, orduan eta arrisku handiagoa kalteak iraunkorrak izateko. Beraz, susmoa piztu orduko antibiotikoak ematea komeni da, diagnostikoa argitzeko proba osagarriak hastearekin batera.

Ziztada lunbarra

Behin betiko diagnostikoa egiteko, aipatutako sintomak baloratzeaz gain, ziztada lunbarra erabiltzen da, horretarako kontraindikazio berezirik ez badago behintzat. Proba horretan orratz bat sartzen da bi gerri-ornoren artetik, eta likido zefalorrakideoa ateratzen da. Baldintza normaletan, likido hori argia eta gardena izaten da; meningitis bakterianoa dagoenean, berriz, kolore arrea du. Likido hori aztertuz gaixotasuna zein germenek sortu duen jakitera iritsiko gara.

Gaur egun haurrak txertatuta daude meningitisa eragiten duten bakterio gehienek kontra: pneumokokoa, meningokokoa, *Haemophilus influenzae*. Hala ere, txertaketak ez du erabateko babesik ematen, ez baitie eragiten meningitisa sordezaketen zepa guztiei.

Meningitis bakterianoaren heriotza-tasa, edo ondorio larriak izateko arriskua, patogeno sortzailearen eta gaixoarekin adinaren arabera da neurri handi batean. Hilkortasuna oso handia da urtebetez azpiko haurtxoengan, behera egiten du helduengan eta nabarmen handitzen da adineko pertsonengan. Gaixoak aurretik zuen egoera klinikoak ere badu zeresana, tratamendua egokia goiz jartzeak bezalaxe. Laburbilduz, tratamendurik gabeko meningitis bakterianoak ia kasu guztietan hilgarriak dira, baina gaur egun, garaiz eta modu egokian tratatuz gero, heriotza-tasa ez da %10era ere iristen. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ezkurra

EZKURRA ALA EZKURRA da lehena? Horra paradoxa. Albaitariak eta arrautzazaleak beste upel bateko sagardotan ibiltzen dira: “Oiloa ala arrautza da lehena?”. Geurea landareak, eta ezkurri heldu behar. Zein da, bada, lehena, ezkurra ala ezkurra?

Ezkurra *Quercus* generoko zuhaitzen fruitua da. Hemen ezagunenak: abaritzza (*Quercus coccifera*), artea (*Q. ilex*), ametza (*Q. pyrenaica*), ametz ilaunduna (*Q. pubescens*), erkametza (*Q. faginea*), artelatza edo arkamurka (*Q. suber*), haritz kandugabea (*Q. petraea*), haritz kanduduna (*Q. robur*), norteko haritza edo haritz amerikarra (*Q. rubra*) eta berauen arteko hibrido ugariak, *Quercus* jende horretako espezieak, genero gutxitan bezala, elkarren artean nahastu eta hibrido berriak sortu zaleak baitira. Makina bat buruhauste eragiten diete botanikariei. Zenbait tokitan pagatzari, pagaziari, pagahurriari, pagoaren (*Fagus sylvatica*) fruituari, ere “ezkurra” deitzen zaio, “pago ezkurra”.

Ezkurra zuhaitza ere bada. Zuhaitza esateko era ugariren artean berezienetako bat: ezkurra.



CEBES-CC BY 3.0

Artearen (*Quercus ilex*) ezkurrak.

Azkuek adiera hori jasotzen duen esatera pare bat bildu zuen: “Zozpolak dirudi bere egurra eta egurra ezkurra” (“ezpala egurretik eta egurra zuhaitzetik”) eta “Ezkur berereango zia” (“zuhaitzetik ziria”; “zuretik ezpala” eseraren tankeran).

“Ezkur berereango zia” eseraren “zia” hitza “ziria” bezala interpretatzen dute (R.M. Azkuek berak, René Lafonek.). Bizkaieraz agian hala da; baina, ez ote da ekialdeko “zia”? Koldo Mitxele-

nak antzinako “zini”-tik eratorritakotzat jotzen du: zia=ezkurra. Artearen ezkurra: artazi. Eta horrela, “ezkur berereango ezkurra” edo “ezkurretik ezkurra”, hau da: “Zuhaitzetik ezkurra”. Polita litzateke...

Ezkurra diruaren sinonimoa ere bada. Aberastasuna ezagutzeko abereak zenbatu behar badira, abere horiek elikatu eta gizenduko dituen ezkurra bera, txanpon egokia... ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zer iritzi daukazu BRF delakoarekin (*Bois Raméal Fragmenté*) egiten den baratzeaz?

Hasier Etxeberria (Gaztelu)

Kaixo Hasier. Baratzean landareen arteko tartea estaltzeak bi helburu ditu: hezetasunari eustea eta belar “txarrak” atzeratzea. Lana eta ura aurreztu nahi izaten dira. Estalkia era askotakoa izan daiteke: plastikoa, oihala, papera, kartoia edo edozein inaurkin organiko: ezpala, lastoa, orbela, belar ondua, garoa, belar berdea...

Lur eta ingurune lehorretatik dator teknika. Kontuz geurean. Europako toki bakanetakoa da hau, ur kantitate eta hezetasun ikaragarriagatik. Teknika horrek hezetasunari eutsi nahi dio, ureztatze premia apalduz eta landarearen estresa baretuz. Zure baratzean hezetasun horren altzoan gaitzak gozo zabalduko dira, gehienak onddoek sortuak baitira...

Hemen askoz egokiagoa litzateke berez sortzen zaizkigun belar “txarrak” uztea. Askotan alferrikako lana jartzen diogu gure buruari: estetikatik. Utzi belarrak eta tartean haziko dira bai barazki bai eta fruituak. Eta, itzaletan, eguzki errainu erretzailetatik babestuta, inon baino guriago, xamurrago eta goxoago. ■

Antzinaroko hooliganak

BARTZELONAKO MUSEO ARKEOLOGIKOA



Erromako Zirkuko Maximoko koadriga lasterketak irudikatzen dituen mosaikoa.

ERROMA, K.O. I. MENDEA. Neron enperadoreak, Zirkuko Maximoko zaldi lasterketen zale amorratua izanik, kirola diruz laguntzea eta arautzea erabaki zuen. Gladiadoreen arteko borrokak erromatarren pasioa zirela esan digute literaturak eta zinemak. Baina zaleen arteko grina primitiboenak eta lehia muturrekoenak Zirkuko Maximoko hondarretan askatzen omen ziren, ez Koliseoan.

Inperioaren garaian lau talde nagusi lehiatu ohi ziren koadriga lasterketetan: gorriek Marte gerraren jainkoaren omenez zeramaten kolore hura; zuriak haizearen jainko-jainkosen taldea ziren; berdeek Ama Luraren kolorea defendatzen zuten; eta urdinek zerua eta itsasoa sinbolizatzen zituzten. Neronek diru-laguntzak eman zizkien lau taldeei, lasterketa berean talde bakoitzeko hiru gurdi lehiatzeko baimena eman zuen, eta orgazainei denboraldi betean beste talde batean "fitxatzeko" aukera zabaltzeko zien. Handik urte gutxira Domizianok beste bi talde sortu zituen, moreak eta urre kolorekoak, baina ez zuten zale kopuru handirik lortu eta desagertu egin ziren.

Erromatar zirkua lehia gogorra muturrera eramane zuten Bizantzioko hipodromoan. Erromako lau klubak artean nagusiki urdinak eta berdeak nabarmendu zituen Bizantzion. Eta zaletasunak kirolaren muga gainditu zuen; taldea aukeratzeak konnotazio militar, sozial, politiko eta erlijiosoak zituen. Esaterako, berdeek merkataria eta errentaria ordezkatzen

zituzten eta monofisismoaren jarraitzaileak ziren, hau da, Jesus funtsean jainkozko izakia zela uste zuten, giza ezaugarriak gabea. Urdinak, aldiz, lurjabeak eta aristokratak izan ohi ziren. Eta ortodoxoak. Justiniano enperadorea urdinezalea zen.

Lasterketarik ez zenean ere, batzuk zein besteak taldetan bildu ohi ziren arerioen zaleei erasotzeko. Kaleko borroka haien ondorioz zaurituak eta hildakoak ohikoak ziren.

Justinianoren erregealdi luzeak krisirik larrienetakoak lasterketa zaleak izan zituen protagonista. 532. urtean tenka areagotu egin zen enperadoreak zergak igotzea erabaki zuenean, Bizantzioren eta Pertsiaren arteko negoziazioek eraginda. Aurkakotasun erlijiosoak ere pil-pilean zegoen. Eta, azkenean, bolbora hipodromoan piztu zen. 532ko nahasmenduei Nikaren Istiluak esan zieten, matxinoek *nika* (garaipena) oihukatzen baitzuten, hipodromoan egon ohi zuten legez. Errebolta hiri osoan zabaltzeko, hainbat jauregi eta Santa Sofia bera kaltetzeraino. Gainera, Justinianok ez zuen bere taldeko zaleen (urdinen) babesa jaso; behingoz, berdeek eta urdinek bat egin zuten enperadorearen aurka. Eta Hipatio izendatu zuten behin-behineko enperadore. Teodora enperatrizak eta Belisario jeneralak altxamendua itzaltzea lortu zuten. Horretarako, kaleak zale urdinen eta berdeen odol gorritz tindatu zituzten. ■



Arrastoak

Nondik dator "Brasil" toponimoa?

BRASIL IZENAREN jatorri etimologikoa oraindik argi ez dagoen arren, Adelino José da Silva Azevedo filologoaren teoria da onartuena. Haren arabera, hitzak zelterazko *bar-kino* izango luke jatorri; feniziarrek koloreztatzaile gorria izendatzeko baliatzen omen zuten. Erdi Aroan, koloragariaren erabilera zabaltzeko ahala, izenak hainbat aldaera hartu zituen: genoarrek *brazzi* esaten zioten, gaztelarrek *brasil*.

XVI. mendearen hasieran, Pedro Alvares Cabral buru zutela, portugaldarrak egungo Brasilera iritsi zirenean, *Caesalpinia echinata* espezieko zuhaitzekin egin zuten topo. Zuhaitzetik kolore gorri biziko zura eta tindagaia lor zitezkeen eta portugaldarrek *palo brasil* esan zioten. Enborrak Europara esportatzen hasi ziren berehala, ia espeziea desagertzera. Baina izenak iraun egin zuen nonbait, Brasilgo gainerako sinbolo nagusietan kolore gorriaren arrastorik geratu ez den arren. ■



FLAG ART


Kolore gorriak eman zion Brasil izena, baina horren arrastorik ez dago Brasilgo banderan.

www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

«Energiaren alorrean demokratizazioa nahi dugu»

2012an sortu zuten GoiEner energia-kooperatiba, eta iazko urrian hasi ziren lehen argindar-hornidura kontratuak egiten. Gaur egun, 1.600 bazkide ditu GoiEnerrek; kontratuak, berriz, 1.000. Kopuru apalak, baina azkar hazten ari direnak. Hego Euskal Herriko etxeetan argindarraren fakturak gero eta buruhauste gehiago eragiten duen honetan, Ochoa de Eribek oharra egin digu: “Gu kontratatzen gaituenak ez du gutxiago ordainduko”. Aldea energiaren jatorrian dago: berriztagarria eta hurbilekoa besterik ez dute saltzen.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zer da GoiEner?

Irabazi asmorik gabeko herritarren kooperatiba energetiko bat, herritarrena. Jendeak ezagutzen gaitu argindar hornidura ematen duen enpresa garelako; eta argindar horren jatorria energia iturri berriztagarriak dira, bertokoak. Kito. Noski, guk ez dugu normalean gure burua era horretan aurkezten. Hori guretzat tresna da. Energiaren alorrean demokratizazioa nahi dugu.

Gaur egungo sistema demokratikoa ez dela salatzen duzue, hortaz...

Gabezia handiak daude, bai alde ekonomikoan bai energetikoan, izan ere biak oso lotuta daude, eta ez gara konturatzen. Tira, konturatzen gara fakturak geroz eta garestiagoak direla, eta beraz badakigu zer eragin duen energiak gure eguneroko ekonomian, baina ez dugu orokortasuna ikusten. Petrolioaren gailurraz hitz egin genezake. Ezin esan baliabide naturalak agortzen ari direla, baina produkzio prozesuak bai, gailur batera heltzen ari dira. Eskariaren eta eskaintzaren arteko oreka galtzen ari da; eskaria gero eta handiagoa da, batez ere BRICS direlako herrialdeetan, Txinan, Indian,

Brasilen... nahiz eta Mendebaldean eskaria pixkanaka jaisten ari den, eta Espainiako Estatuan nabarmen. Batzuek diote: baliabideak daude ia ia betirako. Baina baliabide horiek erauzi eta merkatuan jartzeko behar diren prozesuak beherantz doaz.

Beherantz doazela esanda, zer adierazi nahi duzu?

Zailagoa eta garestiagoa dela erregaia ateratzea. Erauzketak daude Artikoan, ur sakonetan... eta etekina gero

“Konpainia handiek lortu dute berriztagarriei ospea kentzea: garestiak direla, ez direla fidatzekoak...”

eta txikiagoa da. Energia unitate bat ateratzeko gero eta energia gehiago behar dugu. Hori gertatzen da frackingarekin, petrolio astunekin...

Eta horrek badu zerikusirik GoiEner sortzearekin?

Bai, badu. Gure helburua da gauza horiez hitz egitea, jendea ikusaraztea zer eragin daukan eguneroko

bizimoduan dugun kontsumo ereduak. Eta ez dela batere jasangarria. Hainbat krisi ari gara jasaten, handiena ekonomikoa, 2008tik datorrena, baina ez dakigu krisi horren atzean krisi energetiko bat dagoela. Ez dugu ikusten energiak ekonomian daukan eragina. Irtenbideak bilatu behar dira, irtenbide jasangarriak eta tokikoak, ahal den neurrian.

Kostatu egiten da Espainiako Estatu-ko sistema elektrikoa ulertzea. Horren barruan GoiEnerrek zer egiten du, zehazki?

Kateak lau begi ditu: ekoizpena, garraioa, banaketa eta merkaturatzea. 1997an liberalizazioa eman zenean, lehenbizikoa eta azkenekoa baino ez ziren liberalizatu —teorian gehiago praktikan baino—: ekoizpena eta merkaturatzea. Gu merkaturatzaileak gara. 2012 hasieran egin genituen lehen bilerak proiektua martxan jartzeko, eta asmoa ekoizle hutsak izatea zen. Beste herrialde batzuetan asko egiten ari dira hori. Erresuma Batuan, adibidez, komunitate energetikoak sortzen ari dira *crowdfunding* bidez. Hainbat pertsona elkartu, bakoitzak 1.000 euro-edo jarri, eta teiltuetan plaka fotovoltaiakoak ins-



talatu, edo geldirik zegoen zentral hidrauliko txikia berreskuratu, edo... Ekoizpena ez dadin izan urrutiko gune batean —Garoñan, esaterako—, baizik eta norberaren etxetik gertu.

Azkenean, ordea, ekoizpenari uko egin eta merkaturatze-enpresa sortu zenuten. Zergatik?

2012ko urtarrilean Espainiako Gobernuak berriztagarriei “moratoria” ezarri zielako. Hau da, ez da diru-sari gehiagorik energia berriztagarri instalazio berrientzat. Ordura arte, zuk instalatzen bazenuen energia berriztagarrien planta bat, alde batetik jasotzen zenuen salmentatik zuzenean ateratzen zenuen dirua, eta horri gehitzen zitzaion estatuak buletin ofizialaren bitartez ezarritako saria: hainbeste produzitu, hainbeste jaso. Horrela aitortu egiten zen berriztagarriek sisteman duten eragin ona. Izan ere, 2012 aurretik jarritako instalazioek segitzen dute diru-saria jasotzen. Hori bai, murrizketekin eta atzerapenekin.

Eta zein da berriztagarriek sisteman duten eragin ona?

Ez duzu hainbeste erregai fosil

inportatu behar, ez duzu CO₂ isuriengatik ordaindu behar, tokiko ekonomia bultzatzen duzu... Dena den, berriztagarrien sektoreak askotan aldarrikatu du nahiago lukeela diru-sari hori ez jaso, eta aldiz, “kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioa ezartzea. Hau da, berriztagarrien errentagarritasuna sarien bidez puztu beharrean, besteei, kutsatzaileei (ikatz, gasa...) ezar diezaietela isuna. Baina erregai fosilen sektorea oso boteretsua da, eta ez ziren ausartu halako zigor neurririk ezartzera. Horregatik asmatu zituzten diru-sariak, nolabait aitortzeko berriztagarrien onura.

Eta 2012an kendu, hala ere. Hain zuzen, UNESAk, argindarraren alorreko konpainia indartsuenak biltzen dituen elkarteak, esaten du herritarren faktura hainbeste garestitzearen errua berriztagarriei emandako sariena dela. Bai, fakturaren zati bat sari horiek ordaintzeko da, baina ez da esaten berriztagarriek argindarraren prezioa jaisten dutela. Guk fakturan ordaintzen dugu merkaturan ateratzen den prezioa batetik, eta berriztagarrientzako diru-saria bestetik.

Haize-errota batek ez duenean ezer ekoizten, ez diogu saririk ordaintzen, baina merkaturan prezioa igo-tzen da. Aldiz, iturri berriztagarriek energia ekoizten dutenean argindarraren prezioa jaisten da, baina saria ordaindu behar zaie. Non dago oreka puntua? Ikerketak egin dira eta ikusi da kilowatt-ordu bakoitzeko ia 40 zentimoko saria ordaindu genezakeela, eta berriztagarririk gabe argindarrak merkaturan hartuko lukeen prezio berean egongo ginateke. Baina berriztagarrien onura guztiekin.

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



“Ezin da garapena lotu energia gehiago kontsumitzearekin, kontrakoa baizik. Baina oraindik eskema klasikoekin gabiltza”.

Zenbat ordaintzen zaie orain?

Hamabost zentimo. Oraindik askoz gehiago ordaindu ahal izango genieke, eta balantzak kontsumitzailearen aldekoa izaten jarraituko luke.

Hori horrela bada, zergatik eten dira diru-sari horiek?

Energia iturri berriztagarrien hazkundeak gelditzeko. Berriztagarrien ezaugarrietako bat da energia askoz modu demokratikoagoan eskuratze-ko aukera ematen dutela; instalazio handiek ez dute hori. Edonork jar ditzake plaka batzuk teiltatuan, edo lagun batzuekin elkartu eta zerbait handixeagoa muntatu. Era horretan, kontsumitzailea da kontsumitzen duen energiaren jabea, eta enpresa handiei ez zaie hori interesatzen. Berriztagarriek garapen azkarra izan dute, eta konpainia handiak sumatzen hasiak ziren ez zirela gai izango egoera berrira garaiz egokitzeko. Ondorioz, negozioa galduko zuten.

Asko esatea dirudi, Iberdrola batek, esaterako, negozioa galduko duela...

Kontuan izan behar da Espainiako adreiluaren *boom*-ean gas ziklo konbinatuko 25 gigawatt inguru instalatu zirela estatuan (pentsa, energia mota guzti-guztiak batuta 100 gigawatt daude instalatuta). Eraikuntza-aren hazkundeak jarraituko zuela uste zutenean egin zuten inbertsioa. Baina 2008an burbuilak eztanda egin zuen, elektrizitate eskariak behera egin zuen, eta aldi berean berriztagarriak zeharo zabalduta zeuden ordurako. Argindarra sarean sartzeko garaian, ekoizle batzuek lehentasuna dute, eta hain zuzen ere sartzeko den azkenetako bat gasa da. Jakina, gas zentrala errentagarria izateko, gasa erre behar du, ze gainera, gasa aldeztu aurretik erosita dute, urte batzuetarako. Zentral gehienak UNESArenak dira, eta UNESA-k pentsatzen du: nola edo hala nire inbertsioa errentagarria izatea lortu behar dut.

Hortik dator Espainiako Estatuan eman den erreforma elektrikoa?

Bai. UNESAko enpresek botere handia dute. Madrilgo Kongresuko diputatuak onartu dute eragin handiena duen lobbya energiarena dela. Egoera iraultzeko berriztagarrien kontrako kanpaina abiatu dute, bi fronte dituena. Batetik, hedabideen bidez —ez da ahaztu behar hedabide nagusietako iragarle handienetakoak direla— ospea kendu diete berriztagarriari: garestiak dira, ez dira fidagarriak... Mezu horrek izugarritzko arrakasta lortu du herritarrengan, eta berriztagarrien sektoreak ez du kontraerasoa egiten jakin. Konpainia handien beste lan ildoak botere politikoarekiko harremana da. Gobernuak presidente eta ministro ohiak daude enpresa horien zuzendaritza-karguetan. Nork ezartzen du energia politika, azken batean? Enpresa pribatu batzuek. Eta haien interesen arabera egiten dira legeak.

Hitzaldi batean esan zenuen egoera horren aurrean erresistentzia egiteko sortu direla GoiEner bezalakoak.

Honelako kooperatiba bat sortzeko arrazoiak artean daude jasangarritasuna, klima aldaketari aurre egin beharra... Baita efizientzia ere. Gaur egun argindarraren fakturak ordaintzen dugunaren %15 garraioan gertatutako galerak dira. Kontsumitzen den lekutik 100 edo 200 kilometrorara ekoizten bada elektrizitatea, goi-tentsioko lineen bidez garraiatu behar da, eta asko galtzen da. Etxe ondoan ekoiztita galera ez da hainbestekoa eta ez dugu ordaindu behar. Kontua da beste energiak ere bat behar dugula. Arraroa eman dezake baina gure helburua gero eta gutxiago kontsumitzea da. Batetik efizientzia handituz, bestetik alferreko gastuak saihestuz. Ezin da garapena lotu energia gehiago kontsumitzearekin, kontrakoa baizik. Baina eskema klasikoekin gabiltza oraindik: “Kontsumoa handitzeak BPG igoarazten du, eta hori ona da”. Bada, ez. Energia onena gas-tatzen ez dena da. Kontsumoa murriztu behar dugu bizi-kalitatea galdu gabe. ■



«Norbaitek ez duenean ezer galtzekorik oso arriskutsu bihurtzen da»

Podemos-Ahal Dugu alderdi berriko zerrendaburu izan zen Nafarroan Europako hauteskundeetan, baina argi dio bera ez dela inor alderdian. Iruñean bizi denez, hala ere, berari egokitu zaio lehen harreman publikoen ardura, bai hedabide bai alderdiekin.

| XABIER LETONA |



“Horrela izan da humanitatearen historia, txiroek irabazi izan dute asko izan direnean bakarrik”.

BARTZELONAN JAIO ZEN (1965), baina Sant Vicent de Montalt-eko-tzat du bere burua. Abenduaren 28koa, “inuzente egunean jaioa”, dio berak irribarrez. “Bai, esaten didate ondo datorkidala, ez naiz batere tentela baina dena konfian-tza handiz hartzen dut. Hori bai, norbaitek traizionatzen banau, agur eta kito, ez dut bereziki gehiago

gogoratzen”. Ekonomia Zientzie-tan lizentziatua, NUPEko irakasle, ekonomialari peritua, konkurtsoko administratzailea, Nafarroako Enpresarien Konfederazioan eta Nafarroako Industriaren Elkartean ere ikastaroak ematen ditu. Eta Atacc Nafarroako kidea da. “Aspal-di hasi nintzen begiratzen han-hemenka ekonomia kontuak eta

konturatu nintzen telebistak sekula-ko gezurrak botatzen zituela; batez ere saiatzan gara herritarrak ekono-mia kontuetan hezi daitezen, jasa-ten ditugun amarruez eta ahaldun-du daitezen. Arrazoi berak eramaten nau Atacc edo Podemos-Ahal Dugura, jendeari esateko esna behar duela, gertatzen ari denaz jabetu. Hori da nire premia bakarra.

Donostia, Maiatzak 23. Europako Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina, kanpaina bukaerako mitina da. Hegoaldeko lau herrialdeetako zerrenda buruak dira hizlari eta Joan Josep Boschen hitz hauekin ekin zion bere hitzaldiari.

“Ni katalana naiz eta 2007tik Iruñean bizi naiz. Ohartzen naiz Iruñean diren desberdintasun politikoekin eta nazional sentsibiltate desberdinekin. Katalana naiz eta oso adi nago nire lurraldean gertatzen ari den prozesu soberanistarekin. Podemos Madrilen sortua da, baina kasu guztietan herritarren ahotsa entzutearen aldeko apustua egiten du eta ez du inolako oztoporik jarriko katalanek, euskaldunek, nafarrek edo beste edozein komunitatekoek eska dezaketen kontsultari. Ulertuko duzuen bezala, nire hitzaldia gazteleraz izango da, ez bainaiz euskaraz hitz egiteko gai, euskaraz hitz egin nahiko nukeen arren. Nire hitz zintzo hauekin, zuenganako konplizitatea adierazi nahi dut. Eskerrik asko”.

Iruñea, ekainak 7. Gure Esku Dago giza katearen bezperan ari gara egiten elkarrizketa. Berritsua da Bosch, politikarien zuhurtziarik gabekoa, freskoa eta elkarrizketa hasi gabe ere bota eta bota ari da.

“Irakurri dizudan honekin dagoeneko bidali dizut mezu bat. Hala ere giza katea gai gatazkatsua izan da Nafarroako Podemosen. Ez dugu sostengatu, baina joateko askatasuna eman dugu. Nafarroa ez da Gipuzkoa bezalakoa eta Erribera ere hor dago. Herriek erabaki dezaten alde gaude, baina kasu honetan Nafarroak erabaki behar du. Niri berdin litzaidake Arens de Munt edo Val de Aranek Katalunia ez izatea erabakiko balute, herritarrek erabaki behar dute beti.

Hori ez doa kontrajarria Gure Esku Dagok dioenarekin, honen Nafarroako adarrak argi adierazi du nafarrek erabaki behar dutela.

A bai? Ez, ez zegoen hain argi, Durango eta Iruñea lotzen dira eta horrek mezu bat du bere baitan. Baiezkoa eman izan bagenu, Nafarroako Podemoseko batzuk ezetza emango zuten. Beraz, askatasuna eman eta listo.

“Giza katea gai gatazkatsua izan da Nafarroako Podemosen. Ez dugu sostengatu, baina joateko askatasuna eman dugu”

Hauteskunde aurretik politikaria ez zinela zenion. Eta orain?

Orain berdin, bestela a ze kokotekoak emango dizkidan amak harra-patzen banau! [Barreak]. Ez naiz politikaria eta espero dut ez izatea, nire lana dut eta horrekin jarraituko dut. Eskuineko lagun batek atzo bertan esan zidan: “Zer uste duzu Podemosen ez duzuela ustelkeriarik izango?”. “Bada, nik zer dakit—esan nion—, egongo dira akaso, baina ziurtatu ahal izango dut baldin bada norbait kanporatuko dugula eta saiaturiko garela zigortua izan dadin, eta ostiraleko kontseiluko indulturik gabe”. Nik ez dut pezeta bat nahi Podemosetik, nire lana dut eta kito.

Baina politika egiten duzu, politika egiteko beste modu bat aldarrikatzen duzue...

Bai, hala da, ikusten dudalako guk egiten ez badugu besteek egiten dutela herritarren aurka, eta kokoteraino nago. Askotan abstenitu naiz, baina egoera jasanezina bihurtzen da eta sentitzen duzu zerbait egin behar duzula. Pertsona onak ezer ez egitea, hori da maltzurak arrakastarako behar duen bakarra. Orduan pentsatu nuen, ‘brikolagean oso txarra zara, marrazten ere bai eta beste hainbat gauzetan ere txarra, baina gauzak azaltzen oso ona zara

“Ni Ezker Batukoa edo PSNkoa banintz zera esango nuke: zein da produkturik freskoena, modan dagoena? Podemos. Ba orduan, denak Podemosera, eta arrakasta itzela litzateke”

—hori esaten didate ikasleek ere, kar, kar—, baduzu jendearengana iristeko gaitasuna, beraz egin zerbait txo’. Gobernatu eta halakoak? Ez, ez, nik jendea astintzen dakit eta horretan nabil. Baina izandako emaitzak izan ditugu eta orain denak datoz nigana, bai hedabideak eta bai beste politikari batzuk, eta ni ez naiz ezer Podemosen, 23. postuan aurkeztu eta eserlekua atera ez zuen hura besterik ez —baldintza zen ez ateratzeko postuetan joatea—. Hori bai, orain ezagunena naiz Nafarroan, besterik ez.

Boterearen erantzuna oso gogorra izan da. Zuek diozuen kasta horrek beldurra sentitu du?

Beldurra... hainbeste ez dakit, baina arduratuta badaude. Niri ez zait gustatzen kastarena erabiltzea —nahiz eta hala dela uste dudana—, ulertzen dut Pablo Iglesiasek erabiltzea baina ez doa nire izaerarekin eta ez naiz eroso sentitzen, nahiago dut inor irainduko ez duena erabili. Orain PPn eta PSOEn goian daudenak oso ustelduta daude. Euro bat gastatu gabe sekulako eztanda ekarri dugu. Ohiko alderdiek boto-papera bidali dute etxe bakoitzera eta horrek papertxoko 10 zentimoko kostua du. Beraz, 25 milioi pertsonari bidali zaienez, 2,5 milio euro horretan bakarrik gastatu dituzte. Hori bankuen maileguetatik ateratzen da. Gurea gure poltsikoetatik: txapak, fotokopiak, mitinetara joateko gasolina gure patrikatik... Uste dut barrabaskeriak egingo dituztela gure aurka, bereziki hainbeste arduratzen dituen Pablo Iglesiasek aurka, baina arazo bat ere badute eta hori da gure indargunea: gu oso pertsona libre gara, ez dugu ezer espero eta norbaitek ez duenean ezer galtzekorik oso arriskutsu bihurtzen da. Horrela izan da humanitatearen historia, txiroek bakarrik irabazi izan dute asko izan direnean.

Nafarroan, lehenbiziz ikusi da oposizioak gobernua har dezakeela datoren urteko foru eta udal hauteskundeetan.

Bai, agian. Guretzat, dena den, orain garrantzitsuena jendeak parte-hartzea da, herritarrek ahalduntzea.

Ohiko alderdiek molde zahar eta muga asko dituzte eta Ezker Batuko eta PSOEko oinarritzko jendeak oso ondo ulertu du gure mezua. Duela egun batzuk Nafarroako ezkerreko zenbait jenderen bilera bat egin zen, hauteskundeetako irakurketa egin genuen eta beste hainbat kontu. Sakonean, ni ohartu nintzen haiek kalkulu politikoetan ari zirela, batek eta besteak zenbat boto atera dezaketzen pentsatzen. Nik bukaera hartu nuen hitza eta zera esan nien: “Aizue, berdin zait botoak zuek eramaten badituzue, nire mitinetan ere esan izan diet entzuleei, nahi ez badute ez emateko botorik Podemosi, baina ez geratzeko etxean, esnatzeko eta botoa emateko. Nik aldaketa nahi dut, jendeak botoa ezkerreko alderdien alde eman dezan, aldaketa haiek egiten badute hobeto, ni etxera joango naiz tenisera jolastera eta listo, hori da nahi dudana. Ni ez nintzen aurkeztu Nafarroan pentsatuz, Europan baino.

Baina urtebete barru Nafarroan zer egin erabaki beharko duzue.

Badakit eta zirkuluak [Podemoseko batzarrak] erabakiko du. Orain antolatzen ari gara eta lan itzela dugu. Hauteskunde aurretik batzarretan 14-18 pertsona biltzen ginen, hauteskunde ondorengo astebete eta erdian baginen 200 eta handitzen jarraitzen dugu, bakoitzak beste bi ekartzen dituelako. Milaka izango gara. Eta batzarrean hitz egiteko aukera banu, esango nieke: “Eta orain, bozka nahi duzuen, baina mugitu, astindu, aldatu! Beraz, hara laburpena: nire interesa? Hau alda dadila. Non? Ahal den toki guztietan. Norekin? Aldatu nahi duenarekin. Ni Ezker Batukoa edo PSNkoa banintz zera esango nuke: zein da produkturik freskoe-na, modan dagoena? Podemos. Ba orduan, denak Podemosea, eta arrakasta itzela litzateke. Baina ez dute halakorik egingo, hierarkia egitura zaharkituak dituztelako eta jendeak ez duelako horretan sinesten, haiek beren kalkulu politikoetan daudelako.

Oinarritzko zein lauzpabost punturen gaineen eraiki behar da alternatiba. Ezkerrak gauza asko ditu amanko-



“14-18 pertsona biltzen ginen, hauteskunde ondorengo astebete eta erdian baginen 200 eta handitzen jarraitzen dugu, bakoitzak beste bi ekartzen dituelako. Milaka izango gara”.

munean baina, hasteko, PSOE ez da ezkerrekoa eta gainera hilda dago. PSOEko maila guztietako jendea hurbiltzen ari zaigu. Ezker Batua bai, jakina, ezkerrekoak dira eta Bildu ere bai, baina Nafarroako identitate kontuengatik zapaia dute hauteskundeetan. Oro har ari naiz pentsatzen: zor publikoa kontrolatu behar da dirua eduki ahal izateko, AHT geldiarazi, Navarra Arena eta Los Arcoseko zirkuitua astakeriak izan dira, jantoki sozialak eta Cáritas sostengatu, etxegabetxeak geldiarazi... funtsean finantza sistema baino herritarren erreskatea gauzatu.

Nola antolatuko zarete?

Lan itzela dugu alor horretan, baina gure ezaugarriak zintzotasu-

na eta gardentasuna izango dira. Pablo Iglesiasek bildu du jende talde bat antolaketa proposamen bat egin dezan eta udazkenean erabakiko dugu. Batzarra oso demokratikoa da, baina ez du denerako balio, batez ere erabaki azkarrak hartu behar direnean. Nafarroako zirkulua —oraingoz Iruñekoa horrela deitzen dugu— ekainaren 21ean egingo dugu. Iruñean hasi zen Podemos Nafarroa, baina gero Tuterako Podemos sortu zen eta orain beste toki batzuetan ere sortzen ari dira, nahi duenak sortzen baitu zirkulu bat; interesgarriena ahalik eta gehien sortzea, herrietan eta auzoetan. ■



Parkea bete euskara

Imanol Urbietaren *Behin betiko* abestiak dioen moduan, “etxean eta kalean, berdin-berdin jolasean” egin behar da euskaraz. Helburu horrekin batu dira azken asteotan etxeko txikienak, batzuk gurasoekin besteak bakarrik, Parketarrak egitasmoan. Zenbait jolasez gain, eskolaz kanpo, lagunartean, euskaraz egin dezaketela ikasi dute.

Testua eta argazkiak:

| IURE EIZAGIRRE |

30 BAT HAUR BATU DIRA Donostiako Loiolako Erribera auzoko Santiago plazan egindako Parketarrak egitasmoaren uda aurreko azken saiora. Ekimeneko musikak erakarrita enparantza alde batetik bestera zeharkatu duten hiru neskatok erakutsi dute asteroko saio horiek euskararekin lotzen dituztela: euren artean gaztelaniaz hizketan hurbildu ondoren, saiorako prestatutako alfonbretara heldu orduko euskarari heldu diote.

Inguruan dituzten guraso eta senitartekoez ere euskaraz gozatze-ko eremua topatu dute, baita bere garaian beraiek gaztelaniaz ikasitako jolasak euskaraz berrikasteko ere. Minutu gutxiren buruan hasi dira *Arrautzaren jolasarekin*. Guztiak eskuari begira jarri eta hatzak banan-banan pasaz abestu dute: “*Honek arrautza erosi, honek gatza bota, honek frijitu, honek pixkat dastatu, honek dena zurrupatu*”. Bien bitartean, semeari begira ari diren guraso batzuek beraiek ikasi moduan errepasatu dute kanta, gaztelaniaz.

Semeak, baina, gaztelaniazko bertsioaren entzutea soilik izango du, berak euskaraz ikasi baitu abestia. Hori da, hain zuzen ere, Parketarrak egitasmoaren helburua: haurrek ikustea euskara esparru guztietan erabil dezaketela eta ez dutela nahitaez gaztelaniara jo behar jolasteko, behar dituzten esamoldeak edo esaerak aurkitzeko. Parketarrak egitasmoaren aurtengo aurkezpenean Nerea Txapartegi Donostiako Udaleko Euskara ardu-



Haurrek bakarrik ez, gurasoek ere nahi dute jolastu. Helduek, bide batez, jolasak euskaraz ikasteko aukera paregabea dute.

radunak adierazi zuenez, “hizkuntzaren erabilera ludikoa lantzen da, euskaraz jolas egiten ondo pasako dute eta lagunarteko harremanak euskaraz eraikitzeke urrats garrantzitsuak izango da”.

Zabu Zibu eta Txirrintxon

Bizitzako lehen urteetan lagunekin dituzten harremanez harago, gurasoek eta senitartekoez duten garrantzia aintzat hartuta, egitasmoa kudeatzen duen Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak bi programa gauzatzen ditu: Zabu Zibu eta Txirrintxon. Lehena 3 eta 6 urte bitarteko haurrei eta

euren familiei zuzendua dago eta bigarrena, 6 eta 9 urte arteko.

Azken adin tarte horretako 20 haur inguru Loiolako Erriberako Maria Zambrano plazan batu dira, euren kabuz, gurasorik gabe. Ohiko lagun taldea osatzen dute batzuek eta hori nabari da bai euren harremanean bai darabilten hizkuntzan ere, izan ere, batzuek gaztelaniaz egiten dute euren artean. Begiraleekin duten harremana eta egiten ari diren jolasa, ordea, euskaraz dira. Urtxintxaren jokoan elkarri eskuak txalotu bitartean begiraleak azken hilabeteetan egindako zein jolas



Donostiako Loiolako Erriberan elkartu ziren 6 eta 9 urte arteko haurrak.

gustatu zaien gehien galdetu die umeei: *Herensugeak, Inurriarena, Pata-ta tortilla...* Jolas askoren izenak agertu dira. Txirrintxon programan parte hartutako haurren gustuak alde batera utzita, nabarmena da etxeko txikiak euskaraz jolasten ikasi dutela.

Eta saioa amaitzeko gehien atsegin duten jolasetako bat egin dute. Marra baten atzealdean daudela irudikatuz, lerro batean jarri eta begiraleak hitz bat esatean horren arabera keinua egin behar dute: “lurra!” esatean hasierako marrara egin behar dute jauzi, “ura!” esatean uretara salto egingo balute moduan aurrera egin beharko dute jauzi, “sua!” esatean atzera egin beharko dute ez erretzeko eta “txirrintxon!” esatean besoa jasota aurrera egin beharko dute salto. Jolasak aurrera egin ahala hitz gehiago sartu dituzte eta umek txalo artean eta zapore gozoarekin eman diote amaiera oraingoz Txirrintxon programari.

Zortzi auzotan

Loiolako Erribera auzora iazko urrian heldu zen Parketarrak egitasmoa, baina Martutene auzoan du jatorria. Gipuzkoako Urtxintxak aurrez beste herri batzuetan landu-

tako antzeko proiektua hobetu eta 2012an programa-pilotua garatu zuen auzo horretan. Izandako harrera eta arrakastaren ondorioz, egitasmoarekin jarraitzea erabaki zuen Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta aurten zortzi auzotan ari da gauzatzen: Altza, Bidebietta, Intxaurren, Martutene, Loiolako Erribera, Amara Berri, Añorga

“Egitasmoaren helburua da ikustea haurrek euskara esparru guztietan erabil dezaketela eta jolasteko ez dutela nahitaez gaztelaniara jo behar”

eta Parte Zaharra. Euskara batzordeak sortu dira zortzi auzo horietan eta elkarlanean ari da egiten Donostiako Udalak Parketarrak egitasmoa.

Ekimena ez da, baina, Gipuzkoako hiriburuan bakarrik antolatu eta hedatu, izan ere, hainbat herritara zabaltzeko da Parketarrak azken urteetan –kasu batzuetan, bere baitan batzen duen Zabu Zibu programa

bakarririk—. Besteak beste Astigarraga, Orio, Zumarraga, Urretxu eta Durangaldeko hamar herritan gozatu dute umek euskarazko jolasez.

Agur urrira arte

Lau saioko hiru txandatan banatuta (martxoa, maiatza-ekaina eta urria), Donostian amaitu berri da maiatza-ekaineko ekinaldia. Txirrintxon programako saioan ikusitakoaren arabera, penaz bukatu dute batzuek, amaieran neska talde bat kezkatuta hurbildu baitzaio begiraleetako bati. Hurrengo ikasturtean 4. mailara pasako dira eta urrian, Parketarrak egitasmoa berriro martxan jartzen denean, ezingo dute parte hartu, adinez zaharragoak izango baitira. Begiraleak azaldu duenez, “egitasmoa jarraitzaile fidelak dira, beti etortzen dira”.

Aurrerantzean, beraz, Parketarrak ekimenean ikasitako euskarazko jolasak beraiekin artean egin beharko dituzte. Edo gurasoei, Txirrintxon programatik etxera bidean Loiolako Erriberako Bartzelona hiribide luzea “sua!” oihukatuz eta pausoa aurrera eta atzera emanez aitarekin zeharkatu duen mutikoak bezala. ■



Babeslea: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskadi.net	 Enplegu Publikoa Lan-eskaintzen hargidetzak Lan-poltsak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan-eskaintzak Toki administrazioetako idazkaritza, kontabilitateak eta diruzaintza Hautaketak	 Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru aldundiak Beraritzako hiruakuntza prestakuntza EUTU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Euskara ikastaroak Hizkuntza eskakizunak Erabileraren Planaren prestakuntza Argitalpenak (euskara) IZO - Itzulitzaile Zerbitzu Ofiziala
---	---	---	--

«Kutxabanken egiten ari direna lapurreta da, ekonomizidioa»

Julian Zapiain Alonso (Hernani 1955) irakaslea da EHUko Informatika fakultatean. Gipuzkoa Donostia Kutxaren batzar nagusiko kide da eta Biltzen kandidaturako zerrendaburu izana; gaur Kutxako lehendakari den Xabier Iturberen alternatibatzat aurkeztu zuten eta hauteskundeak bozketa polemiko batean galdu. Aurrezki kutxen pribatizazioaz iritzi emaile ezagun eta borrokalaria da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Argazkiak: Dani Blanco

Zure idatzietan ulertu dut aurrezki kutxak fundazio bihurtzea politikarien hautua izan dela. Aldiz, kutxetan agintea daukatenei entzun eta irakurtzen diegu legeak aginduta egin behar dutela...

Begira, aurrezki kutxen lege berria bi urtez aritu dira egosten Madrilen, atalez atal negoziatu dute Espainiako Ekonomia ministerioak Guindos buru zuela eta CECA Espainiako aurrezki kutxen elkarteak, honen ordezkari aritu direla Isidre Fainé lehendakaria –La Caixa– eta Mario Fernandez lehendakariordea. Horiek negoziatu dute lege berriaren azken koma bera ere.

Ohar zaitez legea *Ley de Cajas* deitzen dela. Pentsa ezazu esaten zigutela kutxak desagertzea zihoazela, etorkizunik ez zutela European. Gezurra, Suitzako finantza sistemaren %30 kantonamenduetako kutxena da, Alemaniakoaren %40... Lotsagarrikeria izan da, legean jarri dute interesatu zaiena fundazio bihurtzea derrigor gerta zedin.

Zer da Kutxabank une honetan?

Sozietate Anonimo bat da jabe dauzkana BBK %57arekin, Gipuzkoako Kutxa %32arekin eta Arabako Vital %11arekin. Fernandezek-eta diote enpresa pribatua dela; juridikoki hala da, baina jabeak publikoak dira. Hori da SPRI pribatua dela esatea bezala, SA delako. Baina orain legean ipini

dute *ex professo* Kutxabank bezalako banku baten %10aren jabe izateko hiru kutxetako bakoitzak fundazio bihurtu behar duela. Kontua da alda-keta hori nola egiten den.

Zein aukera daude?

Orain agintzen dutenek dena beren esku nahi dute, bai estatutuak idatzi, bai fundazioen patronatoak izendatu, dena. Azkenean aitortu dute hilabeteak eman dituztela EAJren eta PSE-
ren artean tratua lotzen, gero PP ere berengana ekartzeko. Behin eta berriro argudiatu dute kutxen kudeaketa despolitizatu egin behar dela, eta bukaeran zer lortu dute: politizazio maximoa. Alderdion artean erabaki

“Kutxen pribatizatze prozesuan Gipuzkoan jokatzeko ari da orain azken borroka”

dute nortzuk izango diren patronatu-ko 15 pertsonak, zein estatutu eduki-ko dituzten. Gipuzkoan jokatzeko ari da orain azken borroka. Baina gehien-go daukatenez BBK eta Vitalen batzar eta administrazio kontseiluetan, horietan erabaki eta izendatuko dituzte eta... betirako! Gehiago hauteskunderik ez da izango, ez bezeroen ordezkariarik eta ez ezer.

Fundazioan aginduko duten 15 patronoek gaineratik zaindaritza bat edukiko dutela diozu.

Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarena. Pentsa, udalek eta foru aldundiek babestutako erakundeak izatetik nora garamatzaten. Aurrezki kutxen lege berria PPrekin eten gabe negoziatzen aritu ziren Mario Fernandez eta EAJko parlamentari Aitor Esteban.

Nolakoak dira estatutuak? Ez dituzte erakusten baina eginda daude. PSOErekin akordioa sinatu dutenez, kargu banaketa eta guzti, esan nahi du idatzita daudela. PP gehitu dute, Vital dela-eta behar dutelako. Eta hori denboran luzatzea nahi dute. Hori da pribatizazioa, lehenbiziko pribatizazioa. Horixe da erabakiko dena BBKren batzarrean, batzarrak bere burua desegingo duenean. Aldiz, Gipuzkoan udazkenerako utzi dute, ekainean informatu egingo omen zaigu.

Bi pribatizazio egingo dituztela diozu?

Lehenbizikoa da fundazio bihurtzea, horiek hemendik aurrera ezingo baititu inork kontrolatu, gaur nagusi daudenek baizik. Baina gero, joan den otsailean *Alumni Deustok* eta eta PWC auditoriak antolatutako ekitaldi batean Mario Fernandezek iragarri zuen legea betetzeko Kutxabanken kapitalaren %30 baino gehiago ezingo zutela eduki kutxek, gainerakoa kanpoko kapitalari irekita. Horretaz

debatea zabaldua dago orain, eta hori da bigarren pribatizazioa.

Zuk berrikitan artikulua batean salatu duzu: "Ez duzue disimulurik ere. Kutxak despolitizatzeko aitzakiatan haien jabe egin zarete". Esan zenezaken nortaz ari zaren?

Bai, bada. Hasteko, kaleko inor ez da kutxen jabe eta ez du horien politike-tan edo hustiaketan esku hartuko, berdin EAJri ematen badio botoa, PPri, PSOE edo EHBilduri. Orain ere ez du agintzen, egia. Alderdi politikoek aginduko dute? Neurri batean bai, aparato mailan. Baina nork agintzen du sakonean?

EAJko EBBren barruko eta inguruko talde bat dago, eta gero PSE eta PPko buruzagitzetako talde batzuk. EAJn Joseba Aurrekoetxea, Jon Jaurregi, Xabier Sagredo, Xabier de Irala... Horiek daramate gaia beste osagai nagusiarekin, Neguriko taldearekin.

Negurikoak nortzuk diren? Mario Fernandez Kutxabanken buru dagoena, Ignacio Sanchez Asiain, Garcia Uruñuela, Alicia Vivanco, Juan Jose Arrieta...

Zeuk esana da EAJn badirela bestela pentsatzen dutenak, jende inportantea horiek ere.

Arabako EAJk Vitaleko batzarrera aurkeztu zuen taldean zeuden Juan Mari Ollora –gero Kutxabanken batzorde exekutiboko buru jarri zutena–, Javier Agirre, Maria Jesus Agirre... eta horiek aurkeztu zuten programa irakurtzen baduzu ohartuko zara beste askok defenditzen duten gauza beraren alde daudela. Alegia, eustea bezeroen, erakundeen –dipu-



Zapiain Donostiako Kutxa Municipalaren egoitza nagusia izan zenaren aurrean, Getaria kalean: "Kutxabankek Corfin Capital funtsari saldu dio. Gure ondarea dena saltzeari deitzen diote 'desinbertitzea' eta 'egoitza korporatiboak arrazionalizatzea'".

tazioen eta udalen— eta langileen ahalmenari patronatoak aukeratzera; aukeratzea jendea alderdien goi karguetan ez dagoena, gaia ondo ezagutzen duena; zaindaritza ez dadila egon Espainiako Ekonomia Ministerioaren eskuetan.

Ikusten duzu indarrak gauzak bestelako norabidean eramateko?

Borondate politikorik ez da. Inda-

rra balegoke esplikatu ahalko litza-teke gertatzen ari dena xehetasunez, alegia, kutxekin egiten ari direna hautu politiko bat dela, ez dela egia zientifiko eta tekniko bat berrestea. Indarrak? Badira ekonomia solidarioko taldeak, ikerketa eta pentsamendu mailan ari direnak, hor daude ELA eta LAB sindikatuak, CCOO orain zalantzaz dagoela dirudi...



Ekain berri



Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

Politikoki gaizki eraman du gaia ezker abertzaleak, pribatizazioaren kontra egon arren 2011an onartu egin baitzuen kutxek beren negozio guztia Kutxabanki ematea. Hor egin zuten okerra. Egia da ere besteek engainatu egin zituztela, zenbait baldintza jarri ziren itunean baina hurrengo fasean orduan adostutako baldintzotatik bakar bat ez da gauzatu.

Egin dezagun etorkizuna irudikatzen ariketa. 2015eko udaberrian gaude. Zer gertatu da bitartean Kutxabanken?

Dirua behar dute. Nire ustez kapital anpliazioa eginen dute. Kutxek sortutako fundazioek ezingo dute sartu, ondare guztia Kutxabanki emana diotelako, obra sozialerako gordetako ere saltzen ari dira... Nor sartuko da kapitalean? Edonor.

Azken bi urteotan inbertsio funts espekulatiboekin baizik ez dute jokutzen, horiekin bakarrik. Enpresetan zeuzkaten parteak ere arrisku kapital funtsei saltzen ari zaizkie. Hori egingo dute daramaten negozio motarekin segitu ahal izateko.

Zein negoziotaz ari zara?

Espainia mailako talde sistemiko guztien berfinantzaketetan daude. FCCren zor erraldoiaren berfinantzaketan sartu dira 159 milioi euroekin, FCCk burtsan balio duenean daukan zorraren erdia. Azkenean kreditu horren zati handi bat akzio bihurtuko diete, “tori deus balio ez duten akziook!”. Berdin ari dira berfinantzatzan El Corte Inglés, Portland Valderribas, Vocento komunikazio taldea...

Zer lortu nahi dute? Banku handi bat sortzea indar izugarri bat daukana. Finantzaketaren zati handi bat kontrolatzen duenez, gure eremuan egingo den edozein mugimendu baldintzatuko duena. Benetako aginte faktiko bat.

Bidean, ikusi zer gertatu den: Kutxabank sortzean 5.000 milioi inguru zeuzkan enpresa partizipatuean, orain 3.000 milioitan egongo



Zapiain Banco Guipuzcoanoren egoitzaren aurrean. Hau erosi zuen Sabadell izan liteke, irakaslearen ustez, azkenean Kutxabank ere bereganatuko duena.

da. Arrisku kapital funtsei saltzen segi nahi dute kapitala lortzeko. Zer egom dute Euskaltelekin? Funts espekulatibo bati saldu EAEko zuntz optiko sarea: hori ez da azpiegitura oinarritzko bat? Zer gertatu da Ibermaticarekin, Natra, Zeltia... CAFen %19,5 zeukan Kutxak, BBK Ingeteamen dago... horien administrazio kontseiluak erabaili litezke sinergiak landuko dituzten

“Kutxabanken agintzen dutenen ametsa da banku handi bat edukitzea, beren ustez Argentariakoek BBVA bihurtzean kendu zieten bezalakoa”

profesional onak jartzeko, baina zertarako erabiltzen dira? Tratutarako: PSEri Kutxabankeko administrazio kontseiluan bi jarleku emateaz gain, CAFekoan sartu Buen Lacambra [sozialista]. Gure gizarteak beharrezko dituen baliabideekin ari dira jokoan. Horregatik diot

Kutxabanken operazio hau lapurreta, espoliazioa eta ekonomizidioa dela.

2008an lehertutako krisi ekonomikoak zer garrantzi eduki du?

Handia. Orain saiatzen ari dira Espainiako Estatuko banka guztia hustiaren kontuak saneatzeko. Solbentziarik gabe baitago banka. Estatuan sei banku talde dira nagusi. Nire iritzian Banco Sabadellek [Banco Guipuzcoano erosi zuen] erosi du Kutxabank.

Zergatik diozu?

Banco Bilbao Vizcayan zeuden garaietatik Jaume Guardiola oso hurbilekoa dute Mario Fernandezek eta Ignacio Sanchez Asiainen. Kutxabanken agintzen dutenen ametsa da banku handi bat edukitzea, beren ustez Argentariakoek BBVA bihurtzean kendu zieten bezalakoa, bankaren ohorezko mailan jokatzeko.

Harreman sareak garrantzitsuak dira negozioetan. Horrelaxe erosi zuten Cajasur BBKrentzat. Gure herriaren deposituetatik ia 3.000 milioi euro alferrik galdu dira Cajasurren. Lotsagarrikeria. Cajasurreko kapitalaren 1.800 milioi euroak euskal gizarteak jarri ditugu eta ez dago eskubiderik, badiugulako finantzatzeko behar premiazkoagoak.

Zuk Gure Esku Dago ekitaldian parte hartu duzu. Nola aritu elkarlanean erabakitzeak eskubidearen alde eta Kutxabankengatik enfrentatuta?

Hor zeudenekin ez naiz enfrentatu. Pedagogia egin behar dugu albokoarekin, aurreiritziak alde batera utzita. Baina aginte faktikoek dirua daukenez hedabideak kontrolatzen dituzte, Vocento... Kaltetuak eta horrelako taldeek erakusten digute lanerako bidea. Ondokoarengana iritsi behar dugu, konbentzitu, “hau ari zaigu gertatzen eta ezin dugu onartu”. Hau ez da “Bildu beste hiruen kontra”, ez da horrela egin behar lana. Ez da “kendu zu eta ni jarriko naiz”. Kontua da herri honek finantza baliabide onak behar dituela. ■



Matz-Erreka kooperatiban batzar orokorrak euskara hutsean

GOGOR DABILTZA Antzuola aldean. Orain dela urtebete, Elay enpresak euskara plana bertan behera utzi izana ospatu zuen, lantokian euskara normalizatutzat jo zutelako. Oraingoan, Matz-Erreka kooperatiba-enpresa datorkigu albiste onekin. Azken hiru urteetan batzar orokorra euskara hutsean egitea lortu dute.

2011, 2012 eta 2013 urteetan euskara hutsean egin zituzten batzar orokorrak. Hizlariak, denak, euskaldunak ziren, eta aldiz, 200 langileetatik 20-25 inguru ez ziren euskara ulertzeko gai. 2009an euskararen erabilera gehiago bultzatzeko bideak ezarri nahi izan zituzten, eta hainbat baliabidetara jo zuten: aldibereko itzulpenetarako aparatuek, itzultzaile-interpretak, euskara ikastaroak eta ahoz aritzeko trebakuntza.



Matz-Errekako langile oso gutxi ez dute ulertzen euskara.

Emaitza: 2009an batzarren ahozko jardueraren %94 euskaraz, 2010ean %98 eta hurrengo urteetan euskara hutsean.

Urtean egiten dituzten hiru batzar informatiboetan erabileraren kopuruak xumeagoak ziren hasieran, baina jauzi handia egin dute urte gutxian. 2008an erabilera %22koa zen, eta gaur egun %80koa da.

Bahea

Iker Salaberriak *Berrian* esanak:

“Eta, mapak [V. Mapa Soziolinguistikoa] zer argazki erakutsiko eta arnasmuneak galtzen ari direla. 1981ean EAEn zeuden 79 arnasmuneetatik 18 gutxiago daudela 2011n. Nola gertatu daiteke, bada, halako odolustea? Nola hain atzerapauso mingarria, hizkuntza-politika 30 urtez abian izan duen lur eremuan? Galdera potoloek ohi dutenez, ez du ziurrenera erantzun bakarra. Egungo bizimoduaren bilakaera soziokulturalak, globalizazio prozesuak, teknologia berriek... eta abar eta abar batek izango zuen eragina ziur. Bai, baina, guk egin genezakeenetik zer egin dugu hori gertatu ez zedin? Zein hizkuntza-politika garatu da? Zein bide jorratu da arnasmune horiek sendotzeko, zaintzeko eta berriak eraikitzeko? Galdera horien atzean ez dugu guk erantzun baikorretarako oinarririk. Hizkuntza-politika denean dagoela esan izan dugunean, hizkuntza-politikarako sailera mugatu ezin den kontua dela esan izan dugunean, arnasmuneen bilakaerak erakutsi digu hori argien. Garatu diren etxebizitza politikan, garraio politikan, zerbitzu azpiegitura... izan al du baten batek gogoan arnasmune horien errealitatea? Berriz ere, zalantzak nagusi. Bada, nola ekin arnasmune horien ahultzea joera orokorrak kontrariatu eta hizkuntza-politika orokorrak ere laguntzen ez dutenean?”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Futbolaren burbuila

EUSKAL HERRIAN ADREILUAREN BURBUILA lehertzeak ekarri dituen ondorioak oso ondo ezagutzen ditugu. Orain beste burbuila bat daukagu ordea, futbolarena, ez kirolari dagokiona, baizik eta futbolaren negozioarena —eta neurri txikiagoan saskibaloiaarena—. Oraindik ez da lehertu. Brasilgo Munduko Futbol Txapelketan bete-betean sartu garen honetan, ona litzake gazteei eta jendarteari eskaintzen zaien futbol eredua errebisatu eta aldatzea. Hain justu, Brasilen langileak eta herri sektoreak mobilizatu egin dira Mundu Txapelketaren gastu ikaragarriak salatzen eta garraio publikoan, hezkuntzan eta osasungintzan hobekuntzak eskatzeko.

Zifra batzuk: Brasilek 2.500 milioi euro gastatuko ditu Mundu Txapelketan; Hegoafrikak 1.000 milioi euro gastatu zituen. FIFAk —multinazional bat, kirol erakunde bat baino— 4.000 milioi euro irabaziko ditu eta horietatik 35 milioi irabazleentzat dira. Diru sariak eskandalagarriak dira: Txapelketa irabaziz gero, diru gehien poltsikoratuko duena Espainiako selekzioa da, jokalaria bakoitzarentzat 720.000 euro. Alemaniarek 300.000 euro irabaziko lituzkete eta Kamerungoek

76.000 euro. FIFA nazioarteko publizitateak sostengatzen du ekonomikoki eta ustelkeria kasuek inguraturuta dago. Anartean, soldata milioidunak ordaintzen diren Espainiako futbolari inbertsioak erraztu eta pribilegio fiskalak eskaintzen zaizkio, Ogasunari eta Gizarte-segurantzari milioika euro zor dizkion arren. Euskal futbola eta saskibaloia ingurumari horretan daude.

Gobernuek eta administrazioak badakite futbolak milioika lagun mobilizatzen dituela. Bultzatzen dituzten politikek erakusten dute gastu milioidunak egiteko prest daudela, futbola izan dadin herriaren opioa —lehen erlijioa zen gisan—, jendartea lokartuta edukitzeko eta hala Troikak —multinazionalen eta fortuna handien kudeatzaileak— inposaturiko austeritate politiken kontra euren haserre ez azaltzeko. Baina iritsi liteke momentua masak matxinatu eta burbuila hori zulatu dezaketena. Ea berandu baino lehen den.

Juan Mari Arregi



Guztiaren %90 bi sosen truke itsasoz dakarten horiek

Munduan salerosten den guztiaren %90 itsasoz eramaten dute, legerik ezagutzen ez duten nazioarteko uretan barrena, trafikoa kontrolatzen duten konpainia handiek. %90 da jaten dugun, janzen dugun, berotzen gaituen eta kontsumitzen dugun ia oro. Zarata gutxi dagiten itsas konpainia erraldoiok elikatu dute globalizazioa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ROSE GEORGE KAZETARI INGELESA Somaliako piratez 2010ean ikertzen hasita harritu zen datu honekin: 544 marinel zeuzkatela han bahiturik. “Zer ari da gertatzen itsas garraioan, pentsatu nuen. Beste industria batean gertatuko litzateke? Ikusiko genituzke 544 pilotu beren *Jumbo* hegazkinetan urte betez pista batean lehorreraturik? Autobusetako 544 txofer? Ez litzateke posible”.

Hari horri tiraka osatu du Georgek XXI. mendeko itsasketaren erradiografia. Ikertuz eta bost astez Maersk konpainiaren *Kendal* bapore erraldoian biziturik. Aurkitu duenak izenburutzat darama “Edozeren ehuneko laurogeita hamar”, eta ondoren “Itsasketa: zure soinerako janzkiak, autorako gasolina eta platererako jakiak dakartzan industria ikusezina”. Gaztelaniaz argitaratu berria da itzulpena (“*El 90% de todo*”). Egileak *TED talks* famatuen sailean egindako aurkezpen laburra ikus daiteke Interneten.

Ikusi ezin daitekeena erakutsi nahi du Georgek liburuan. “Kalean edonori galdetzen diozu ea ezagutzen duen Microsoft eta seguru baietz, baita bere jabea ere. Aldiz, galdetu zer den Maersk eta inork ez dizu erantzun, nahiz eta Microsoftek adina diru irabazten duen”.

Maersk (eskriturretan A.P. Moller – Maersk Group): 2.423 milioi

euroko irabaziak, 43.200 milioiko negozioa, 117.000 langile munduan, 600 barku, Danimarkako Barne Produktu Gordinaren %20.

Ur gaineke garraioan dena da erraldoi. Mundu osoan 1970etik lau halakotu da itsas garraioa, eta handitzen segitzen du. AEBetako 360 portu komertzialek gaur mugitzen dituzten gaiek balio dute 1960an mugitutakoen halako 80. Planetako itsasoetan batera eta bestera 100.000 bapore dabilta mundutarrok kontsumitzen ditugun solido, likido eta gas guztien karretoan.

George eraman duen *Kendalek* 6.000 kontainer daramatza. Munduko ontzi handienak 15.000. “Bere barruan garraiatu ditzake 746 milioi banana, europar bakoitzarentzako bana”. Maersk 600 zamaontziren jabe da. Guztien artean daramatzaten kontainerrak bata bestearen ondoan jarrita 11.000 kilometroz goiti osatuko lukete, lurraren gerriaren erdia; bata bestearen gainean etzanda 7.530 Eiffel dorre. *Kendaleko* kontainerrez zamatutako kamioien ilara 100 kilometroz luzatuko litzateke.

Eta halaz eta guztiz ere mundu globalizatuaren motorra dena ezezaguna zaio herriarrari. Hasteko, eskifaiaakoa ez den inor ezin da sartu barkuan. Ezta portuetan ere. Jen-deak ez ditu ezagutzen kai harriga-

Wikipedian Garitzko delakoak eskegitako argazkian, Maersk konpainiaren *Kendal* zamaontzia Alemaniako Bremerhaveneko kaian. Rose Georgek bost asteko bidaia egin zuen bertan, itsasoko garraioari buruzko “*90% of Everything*” liburuia girotzeko. Ataletako batean azaldu du trafiko izugarri honek eragindako kutsadura. Egia da bideko, eta zer esanik ez, airekoak baino gutxiago kutsatzen duela itsasoko garraioak, baina hala ere petroliorik merke eta lodienetik sekulako pilak erretzen ditu. Birfindegietako fuel-hondar horixe da baimentzen duena produktua hain merke ibiltzea ekoizpen eta banaketa bidean munduan zehar batera eta bestera. Bestalde, kutsadura akustikoaz gero eta informazio gehiago dago. Makina erraldoiok beren zarata izugarriarekin interferitzen dituzte zetazeoen arteko komunikazioak. Urte gutxitan, esaterako, Atlantiko Iparrean %90ean murriztu diote bizilekua baleari.

rriok, garabi erraldoiak, eraikin gotorrenak baino handiago diren kargaontziak. Jendearen eguneroko bizilekuetatik aparte dabilta.

Duela berrogei urte egunkariet al berezietan ematen zuten portu nagusietako trafikoaren berri, Euskal Herrian ere bai. Orain ordainpeko buletin eta webgune berezietan bilatu behar da informazioa.

Itsasoko ugazabek ere ez dute publizitaterik maite. “Horien ondoren Suitzako bankari bat berritsua da”, dio ironiaz Georgek. Greziako ontzi-jabeen patronalak ez du ematen ezta bazkideen kopurua ere.

Mirarizko edukiontzia

Kontainera da trafiko honen arrakastaren gakoa, 6,1 metro luzeko TEU (*Twenty-foot Equivalent Unit*) edukiontzia. Horrelako 20 milioi kaxa dabilta mundua zeharkatzen oraintxe. Kontainerrak zabaltu aurretik, itsasoz eramandako edozeren prezioaren %25 zen garraioa. Orain hutsaren hurrengoa da. 5.000 kilometroko txangoa egin duen jertsearen prezioan 20 xentimo, garga-gardo lata baten xentimoa. “Hain merkea izanik itsasoa, Eskoziako bakailaoa merkeena ateratzen da Txinan xerratuta”.

Nork jartzen du legea, ordea, zirkulazioan? Inork ez... edo indartsuenak. 20 miliatik aurrera bazoaz,



Ba omen dira itsasoko legeak, nazioarteko itunak. “Itsasoak –dio Georgek– paperak urtzen ditu. Ozeanoa da gaur ere munduko lekurik salbaiena. (...) Zerbait txarra gertatzen bada nazioarteko uretan, hemen ez da laguntza eske joateko ez poliziarik, ez sindikatuko ardura-dunik. Pentsa arazo bat daukazula, norengana jo behar duzu zu kontratatu zaituenean Manilako agentzia batek jabe Amerikar batena izanik Panamako bandera eta Zipreko kapitaina dauzkan ontzi baterako, nazioarteko uretan zaudenean?”

George hunkitu dute marinelen bizi-baldintza gogorrek, aitorturik *Kendalekoek* beste askok baino zori hobea zutela [kazetaria bornuan ez zuen Maerskek baimenduko dena txukun ez egotekotan] Agur telefono mugikor eta Internetak, edozein emigrante xumek eskuratu dezakeena munduko marinelen %12k baino ez daukate. Lanordu amaiezinak. Portuko egonaldi bereziki laburrak. Osasun zerbitzurik ez pakebot hiper-automatizatuotan.

Eta piratak. Zamaontziok babes sistemak dauzkate piraten erasoak gertatzen denerako. Munduko negozioarik onenetakoa omen da itsasoko lapurretak.

Bai itsaslapur zarpailek eta bai harrapakinak paradisu fisikaletan gordetzen dituzten ugazabek, ondo erabiltzen dute Britainia Handiko Armadako buruak deitu zuena *sea blindness*: itsasoko itsutasuna. Jen-deek ez du ikusten kontsumitzen duten ia dena nork-nola-zenbatean ekarri dien urrundik eskuetaraino. ■



ur arreetan sartzen zara. Hasteko, trafikoan dabiltsan ontzi gehienak komenentziazko banderapekoak dira: daraman banderak ez du zerikusirik ez jabearen, ez merkantziaren, ez eskifaiaren eta ez ibilbidea-rekin. Batak Panamako oihala erakusten du, besteak Liberiakoa, edo Marshall uharteetakoa...

Ontziak aspaldi *deslokalizatu* zituzten, eta haiekin zergak eta marinela. Britainia Handiak 1961ean 142.462 marinela zeuzkan eta AEBen bandera zeramaten 1.268 zamaontzi; gaur 24.000 marinela britainiar besterik ez da eta AEBen ikurra 100 ontzik baino gutxiagok erakusten dute. Konpainiek gure kontsumogai guztien joan-etorriari ateratzen dizkieten

etekinak ere banderak bezain komenentziazkoak diren paradisu fiskaletan metatzen dituzte.

Kendal bezalako mastodonteak 21 lagunek maneiatzen dute. Kontainerren informatizazioaren mirariak. Rose Georgek kontatu du ofizialak zituela Birmania, Errumania, Moldavia eta Indiakoak, eta langileak txinatar bat ez beste guztiak filipinarrak. Filipinetan jendeak ingelesez ondo daki eta merkea omen da.

Horiek guztiek itsas zabalean dauden bitartean ez dute edukiko kapitainarena ez den beste autoritaterik, ezkontzeko bezala haserreak konpontzeko edo hildakoan itsasora jaurtitzeko. Emakume gutxi dabil eskifaietan. Norengana jo bart urliak bortxatu zaituela eta?





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
 Hernani, 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

AEBen inbasioak ekarri duena

AEB-EK 2003an inbaditu zuten bigarrenkoz Irak beste hainbat herrialderen laguntzarekin –batez ere Erresuma Batua–, baina NBERen oniritzi barik. Hau da, nazioarteko legediaren adierazpen gorenari muzin eginez. Beste modu batera esanda, nazioarteko legediaren aurka, beste hainbat alditan moduan. 2011ko Dorre Bikien erasoaren ondoren, George Bush lehendakariak gidatutako AEBek, munduko jihadismo islamiarren aurkako gurutzadaren une gorenari ekin zion. Aitzakia nagusia: Saddam Husseinen erregimenak suntsipen handiko arma kimikoak izatea eta terrorismo islamiarra sostengatzea.

2008an, Bushen agintaldiaren amaieran, AEBetako lehendakari txarren artean kokatzen zuen bere herritarren iritzia. Ekonomi krisiaren hasiera eta AEBak Irakeko gerra zingiratsuan sartu izanaren ondorioak ziren. Gerrari ekin eta bost urte geroago, 2008ko abenduan, ABC News kateari emandako elkarrizketa batean, Bush onartu zuen Saddam Husseinek ez zuela suntsipen handiko armarik, AEBetako informazio zerbitzuen txostenak okerrak zirela eta akatsa izan zela haiek sineste. Milaka heriotzen erantzulea bai, baina inolako ondoriorik ez harentzat. Munduko nagusia izatearen abantailak.

Irakeko gerrak aurrera jarraitu zuen eta hurrengo lehendakari Barak Obama izan zen 2013aren amaieran AEBetako indar militarrek Iraketik erretiratu zituena. Hamarkada bateko gerraren ondoren, lehen begiradako ondoriorik larrienak honakoak dira: ez



dago garbi zenbat hildako eragin dituen gerrak, baina ehunka mila izan daitezke (horietatik ia 5.000 soldadu estatubatuar) eta Irak goitik behera txikitua geratu da. AEBen gastuari buruzko datuak ere gorabeheratsuak dira, baina 2 bilioi euro inguru lirateke (2 milioi milioi euro). Bi alde ditu gastuaren txanponak: suntsipena irakiarrentzat, zoriona AEBetako industria militarra eta berau kontrolatzen duten enpresentzat.

ORAIN berriz erabaki da Irak nazioarteko agendaren lehen lerrora ekartzea. ISIS (Irakeko eta Sortaldeko Estatu Islamikoa) muturreko gerrilla islamista sunita indartsua Bagdaderantz doa hainbat hiri eta eskualde garrantzitsu hartu ondoren, besteak beste Mosul, Irakeko bigarren hiria. Erantzun gisa, Nuri Al Maliki lehen ministro xiitak gerra santura deitu ditu herritarrek eta, hortaz, berriz ere sunita eta xiiten arteko gerra zibilaren areagotzea da begien aurrean. Azken finean, oraingoz behintzat, badirudi Irak hiru zatitan banatuta gera daitekeela mugimenduon ondorioz: kurdien iparraldeko esparrua, sunitak mendebaldean eta ekialdean xiitak.

Nazioarteko ordenari begira galdera nagusia zera da: Zertarako balio izan zuen AEBen Irakeko inbasioak? Eta erantzuna garbia da edozein angelutik begiratuta ere: ezertarako ere ez. AEBek, alabaina, etekin ugari atera diote egoerari. Batetik, petrolioaren kontrola. Irakeko gobernuak kontrolatzen ditu ustiaketa gehienak, baina berauek bideragarri egiteko funtsez-

koak dira mendebaleko petrolio konpainiak. Horrez gain, ekoizpenaren kontrola bere menpeko gobernu batek du, eta horrek, lasaitasunaz gain, negozio aukera ugari irekitzen dizkio. AEBetako enpresa eta multinazionalak, halaber, giltzarrir dira Irakeko berreraikuntzan. Eta lobby militarrek AEBetako aurrekontu militarra bikoiztea lortu zuen 2003tik 2011ra. Horren ondorioak ideologikoki ere handiak izan dira AEBetako gizartearentzat, gastu publikoa murrizteko aitzakiarekin, AEBen politika ekonomikoek klase ertainen ahultze handia lagundu dutelako.

Irakeko biztanleriaren egoera oso larria da 1990eko Golkoko lehen gerraz geroztik, eta etorkizuna agian bakarrik baretuko da bere desagertzea eta hiru estatu berrien sorrerarekin, baina hori ere gehiegi aurreratzea izan liteke gaur egun. Argi dagoena zera da, AEBen eta mendebaldeko indarren parte-hartze militarrek, bideratu baino egoera okertu besterik ez dute egin. Ezer gutxi esatea da, baina edozelako konponbideren hasiera, AEBen erabateko erretiratzea eta NBERen egiazko bake parte-hartzearekin hasten da. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Governors

Morphinapolis

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Argia kamiseta

kamiseta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2418. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)

EKAINBERRI

- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)
- Gernika-Lumoko Udal Liburutegia (Gernika-Lumo)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)

ERLEA GURE SEDAGILE liburua

- Erramon Egurrola Zabala (Aulesti)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Garazi Cristobal Azkarate (Urruñia)
- Josu Martinez Martinez (Bilbo)
- Oihana Etxebarrieta Legrand (Elorrio)

GOZA DAITEKE GEHIAGO liburua

- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Blanca Lopez Garcia (Gabiria)
- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)
- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)
- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparraldean 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikaile baxera (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela bidez %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPAREA
HERRIEN VITRI

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)